

Senta. Norazenean ikuskizuna Areatzan hilaren 5ean

12. orrialdea

Arratiako Maratoi Txikia bagilaren 5ean izango da

Edade baxotxerako egokitutako ibilbideagaz, nagusiek 11 kilometro egingo ditue, Zeanuritik Igorrera, Zeanuriko plazatik 10:15ean urtenda. Gaztetxoek Artea-Igorre ibilbidea egingo dabe eta txikerrenek zirkuitu bat Igorretik. Aurtengoa 41. edizioa da. **11. orrialdea**



Sorotan Bele Areatzako Bandagaz Igorren hilaren 5ean

12. orrialdea

Jai gosea baretzen lehenengoak izango dira Igorrekoak

Atzenengo jaietan, 2019an, egondako Skakeitan taldeak joko dau aurten be.

Kepa Intxaustik botako dau txupina bagilaren 10ean 19:00etan, udaletxeko balkoitik, hamar egun eta bederatzigauetako jaietako hasikerea emoteko. Hortik aurrera, kontzertuak, kuadrillen arteko jokoak, lehiaketa gastronomikoak, herri bazkaria... 50 jarduera baino gehiago.

Lukiek, Ezpalak, Akerbeltz, Galazota, Gozategi, Zirkinik bez, Karibe Mix, Herdoil, Nafarroa 1512, Gora Herria, Zeinke eta Skakeitan taldeek kontzertuak eskainiko dabez bariku eta zapatuetako gauetan. DJ-ak, elektro-tarangek, Musika Eskolako konboek, abesbatzek eta kalejirek, besteak beste, osotuko dabe musika eskaintzea.

Gastronomiaren aldetik be interesgarria da egitaraua: Saharako gastronomia, Paella Lehiaketea, herri bazkaria, kuadrillen afaria... mokautxo bat janda indarrak berreskuratzeko aukerea ez da faltauko.

Kuadrillek be errepereruko dabe jaietan izaten eben protagonismoa, umorea ipiniz, kuadrillen arteko olinpiada eta Karropoteoan, esaterako. Kirol eta kultura eskaintzak eta umeentzako jarduerak osotuko dabe Igorreko jaietako egitaraua. **5. orrialdea**



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Putxs en Lucha-ko Carolina Clementeri alkarrizketea

Prostituzinoaren gaineko berbaldi bi antolatu ditue Arantzazun. Aprilaren 27an, Carolina Clemente egon zan sexu-langileen eskubideak defendiduten, eta bagilaren 17an, Amelia Tiganus egongo da abolizionismoaren alde. Clementegaz egon da berbaz BEGITU. **8. eta 9. orrialdeak**

LEMOA

Bildarratz eta Pedrosak azaldu ebezan Hezkuntzaren oinarriak

Jokin Bildarratz Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailburua eta Begoña Pedrosa Sailburuordea, Lemoan egon ziran Hezkuntza lege barrirako egindako lana azalduen. Ikasleak, ikastetxeak, irakasleak, euskera, gobernantzea eta eraldaketa pedagogikoa dira horren ardatz. **7. orrialdea**

ARRATIA

Gizonezkoen Arratia B Lurraldeko Lehen Mailara igon da

Lemoako Harrobik be mailaz igoteko aukerea dauka. Izan be, Lurraldeko Lehen Mailara igoteko promozioa jokatuko dau datorren asteetan.

Hasikerako helburua mailaz igotea ez bazan be, denporaldia sano ona egin ostein, helburutik harago joiana da lortutakoa eta Arratia B taldea maila honetara igotea lortzen historikoa da Asier Etxezarraga presidentearen arabera. A taldeak hirugarren amaitu dau ligea.

Andrazkoen Lehen Liga Nazionala jokatuko dauan Arratia taldea barriz, 11. geratu da sailkapanean. **10. orrialdea**

GARENA

Tradizio berriak

Iturriotz auzoa, 11 [Dima] · 946 317 215 · garena@garena.restaurant
 garena.restaurant

EKIN
 30 urte beharrean

- LAN PUBLIKOAK
- INDUSKETAK
- GARRAIOAK
- UR SAREAK
- SANEAMENTSU SAREAK
- BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
- PABILOIAK
- URBANIZAZIOAK

94 631 72 57 Igorre (Bizkaia)
eraiketak@construccioneseekin.com

Literatura txokoa

EMAKUMEAK

"Eduardo Galeanok utzi zigun azken liburu hau askotariko perla txikiz osaturiko mosaiko koloretsu bat da, gaztelaniaz irakurri nuen halako mundu zabala eta aberatsa ireki zidana, non euskarara ekartzea erabaki bainuen, bilduman jasotako emakume horien guztien balentria gogoangarriak gure hizkuntzaren bidez ere ezagutuak izan daitezzen". Horixe idatzi eban Mikel Vilches itzultzaileak liburuaren atzeko azalean.


Zati hori irakurri nebanean, pare bat esaldi sano deigarriak egin jatazan: "perla txikiz osaturiko mosaiko koloretsua" eta "emakume horien balentria gogoangarriak"; hain deigarriak egin be, ze liburuari ebatu eta segiduan hasi nintzan irakurten. Ez da

liburukote mardula, arrasti baten ezarri eta aldikada baten irakurteko moduko liburutxo da, baina apurka-apurka irakurri dot; opatuten deuskuzan perla horreek banan-banan, pazientzia hartuta, irakurri dodaz. Jaso dogun gizonen kulturen horrenbeste andrazko adoretu egon dala jakin be ez dot jakin eta. Gainera, apurka-apurka irakurteak andrazko horreen guztien historiak gogoan hobeto gordetzen, itsatuten, lagundu deust. Eta perla horreen gainean egin dodan gogoeta bakoitzagaz hazi egin nazapur bat, perla guzti-guztietatik ikasi dot zeozer. Liburuak irakurten dauana, behin irakurtaldia amaituta, persona jantziagoa izango da andrazkoen munduaren gai-

nean, eta gure gizarteak badauka horren beharrezana, euki be.

Irakurri gura dauanari aholku hori emoten deusat, irakurri dagiala pazientziagaz, bertan agertzen diran perla horreek, andrazkoen bizitza horreek, imajinetako ahalegina eginaz; eta norberaren bizitzarako eredutzat hartuta. Pelikuletan moduan historia horreek batzuetan amaiera ona daukie eta beste batzuetan okerra, baina beti be duintasunez eta ametez bete.

Rafa Ugalde



Eduardo Galeano

Emakumeak

Txalaparta argitaletxea, 2019

144 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Maiatzaren 30etik bagilaren 5era

Andrea Lavín Abadia. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18 eta 652 733 820

22:00etatik 09:00etara

Gutierrez. Amorebieta-Etxano.

Bagilaren 6tik 12ra

Rodríguez Martínez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09 eta 688 635 154

22:00etatik 09:00etara

Ruiz Golvano. Amorebieta-Etxano.

Bagilaren 13tik 19ra

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara

Goiria Montoya. Amorebieta-Etxano.
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara

Zoco Robles Miren Nekane. Urbi 15. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 600 74 63

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 01 85

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 30 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Arratiako Udalen

Mankomunitatea 94 631 17 17 /

mankomunitatea.arratia@bizkaia.org

Gorbeialde Landa

Garapenerako Alkartea

94 631 55 25 / gorbeialde@gorbeialdea.com

Areatzako Parketxea 94 673 92 79

IKE 94 673 62 51 / kulturetxea@igorre.net

Euskotren 94 433 33 33 / euskotren.eus

Areatzako Notarioria 94 673 92 26

Errota Fundazioa

688 854 543 / info@erota.eus

Arratiako Musika Eskola

94 631 73 52 / www.arratiakomusikaeskola.eu

Bizkaibus 94 612 55 55

3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era ordu. Jaiegunean orduo 07:15etik 22:15era.

Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduo: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua

22:00etan. Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan. Orduo: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunean: 07:45etik 21:45era ordu.

3911 Linea. Bilbo-Galdakoa

Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 22:00etara ordu. Zapatu eta domeketan Durangoraino.

Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era ordu.

Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik

21:10era ordu. Zapatuetan: 06:30etik

21:30era ordu. Jaiegunean: 07:30etik

21:30era ordu.

3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-

Lemoa-Durango-Ermua-Eibar

Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era

orduro. Jaiegunean: 07:30etik 22:30era

orduro.

Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik

21:00etara ordu. Zapatuetan: 06:20tik

21:20era ordu.

Jaiegunean: 07:20tik 21:20era ordu.

3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunean, Otxandiora: 06:45etik 20:45era ordu.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Ubideetik. Lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Jaiegunean: 08:45etik 20:45era bi ordu behin.

* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten

diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.

Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era ordu.

Jaiegunean: 08:55etik 20:55era ordu.

3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara ordu. Zapatu eta jaiegunean ez dago zerbitzurik.

Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era ordu. Zapatu eta jaiegunean ez dago zerbitzurik.

3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao

Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00;

11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

*Basauriraino bakarrik.

Basauritik Zeberiora. Lanegun eta

zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20.

*Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.

Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

Ugaotik Artea. Lanegun eta zapatuetan: 13:05, 15:30, 20:40.

Igorretik Ugaora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:55ean.

Ugaotik Igorrerako. Lanegun eta

zapatuetan: 07:20ean.

Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunean:

08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriatik Zeberiora. Jaiegunean:

10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urteten dau eta Otxandioakoak 16:00etan. Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan urteten dau Bilbotik.

Jaiegunean: Ubidekoak 10:00etan urteten dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan urteten dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30ean. Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urteten dau Gasteizetik.

Jaiegunean: Ubidekoak 16:30ean urteten dau Gasteizetik.

Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** begitu@begitu.eus. **Webgunea:** www.begitu.eus. **Zuzendaria eta publizitate arduraduna:** Iñigo Iruarizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** inigoirua@begitu.eus. **Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** beazpiri@begitu.eus. **Erredakzino arduraduna:** Asier Abrisketa eta Beatriz Azpiri. **Webgunearen arduraduna:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** asierabrisketa@begitu.eus. **Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga. **Banaketak:** Garbikuzi enpresea (Arantzazu, Areatza, Artea, Bedia, Dima, Lemoa, Ubide, Zeanuri eta Zeberio) eta Eguzkiñe Zuluaga (Igorre). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria. **Twitter:** @BegituEus **Instagram:** @begitu.eus



Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkartearenak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikatu, eraldatu daitezke, beti be iturria aitatzu eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatze.



Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

ZEURE BERBEA

Bea, zuokaz gagoz!

Oin dala urtebete albistegi eta egunkari guztietan agertutako barri batek Arratia osoa astindu eban, batez be Andraizea taldea. Izan be, gure taldekide baten kontrako ustezko hilketa saiakerea gertatu zan. Egia esan, "ustezko" berbak berak ez deutso erasotuaeren berbeari sinisgarritasuna kentzean? Guk sinisten deutsagu!

Hori pasautakoan, epaileak hartu beharrezko neurriak hartuta, sustoa apur bat gaintututa eta behar beste laguntza eskaintuta, bizitzak aurrera segidu eban. Gaur egun, atzera begira, ez ete zan epelegia izan erantzuna Arratian? Eta baita gure taldean bertan be? Arriskurik ez egoteak gehiegi lasaitu ete ginduzan?

Baina oin dala hiru hilabete, (in)justizia patriarkala zala medio, dana aldatu zan; bildurak indarraren indarrez atzera be atea jo eban! Hain eban gogor astindu, maletak eginda eta semea eskutik oratuta etetik alde egiteko punturaino, maite eban guztitik (laguengandik, beharretik, herritik...) urruntzeko punturaino, bizitza guztiz aldatzeko punturaino. Hori zilegia ete da ustezko erasotzailea edonondik lasai dabilan bitartean?

Momentu horretan benetan hasi ginan ahiztatasunaren, maitasunaren eta laguntzaren sareak ehunten, batzuk Bea nor zan oso ondo ez jakin arren! Bardin jakun! Gutako

batek laguntza behar eban eta gu lagunduteko prest gengoan!

Galdetu geuntsanean zer behar eban, egoerea ezetu arazotea eta besarkadak baino ez euskuzan eskatu eta ordutik horretan gabiz buru-belarri:

Korrika bizi dan lekutik pase-tan bada, bertara hurreratu eta, eurentzako petoak opari, danok batera korrika egiteko prest! Eta zaku bete besarkada!

Astegoien baten beharrera etorri behar bada, lan orduetan babesa emoteaz gainera, danok batera bazkari ederra gozatzeko prest! Eta zaku bete mosu!

Beste astegoien baten lanera etorri behar bada barriz, lanerako bidean, herriko errotondan, "Bea, zuokaz gagoz" pankartea! Eta zaku bete maitasun!

Hurreratu ezin bada, bizi dauan egoerearen ondorioz, "Bea, zuokaz gagoz" gozoz betetako bideoa! Eta zaku bete animo!

Edo kotxeak hartuta beragana egun pasa besarkada, mimo eta maitasun guztiak emoteko asmoz!

Mezuek, deiek, whatsapppek... danek balio dabe hor gagozala esateko, urrun baino hur, edonoz besarkatuteko prest, entzuteko prest... eta horrek bildurraren pisua arinduten dau, gertatutakoa une batez ahaztuten lagunduten dau, bizitzan momentu gozoak dagozala gogorazoten dau eta itxaropenari atea zabalduten deutso.

Segidu daigun sareak ehunduten! Bea eta semearentzako justizia! Bea, zuokaz gagoz!

ANDRAIZEA DIMEKO ANDREEN ELKARTEA

Dimako frontoi handiaren proiektua!

Diman 2022ko maiatzaren 18an egindako plenoan ez zan Udal Gobernuaren 1.020.414 euroko frontoiko obra proiektua onartu.

Kirol ekipamentu eta jardue-ra guztia frontoian zentralizetea helburu lez hartuta eta kolektibo zaurgarriak kirolera hurbilduten lagundutea atxakiatzat hartuta, Udal Gobernuak dagozan harmailak bota eta azpian aldagelak, lokalen bat eta gimnasioa eraiki gura izan ditu (oingo aldagelak itxi eta informazio bulegoa ez zirala erabiliko aurreikusten da proiektu horretan).

Dimako kirol jarduea frontoi handian batzeara idea ona izan leiteke eta esan beharrik ez dago kolektibo zaurgarriak kontuan hartu behar dirala, baina hori aurrekontu txikiago batez eta daukaguzan lokalak aprobetxatuta egin leiteke.

EH Bilduren proposamena dagozan espazioak konpondutea izan da beti: aldagelak konpondu, hezetasunak kendu eta informazio bulegoa egokitu.

EH Bildu legegintzaldi hasikeratik frontoian konponketak egiteko proposamenak egiten ibili da. Udal Gobernuak proposatu dauan 1.020.414 euroko obregaz bat ez gatzala hasikeratik erakutsi dogu.

Plenoan aurkeztutako proiektua onartzen ez bada obrarako dirulaguntza galduko dala esan dau Udal Gobernuak (dirulaguntzea hartzeako obrak urte amaierarako eginda egon behar diralako). Proiektuak BFAko 339.000 euroko dirulaguntza izan dau. Obraren aurrekontuaren %33. Diru hau be diru publikoa dala gogoratu behar da. Danon boltsikoetatik urtetan dana eta diru publikoaren kudeaketa arduratsua egitea toketan jaku.

Jakin dabe gai honetan EH Bilduren postura eta azken-azken momentura arte itxaron dabe gai hau plenora eroateko. Aurretik ez da inongo aukerarik egon beste proposamen batzuen gainean berba egiteko.

Plenoan obra hau onartu ezpada be, proposamen barri bat lantzeako prest gagozala adierazo dogu. Honezkero hasi gara honetan lanean.

DIMAKO EH BILDU

ERETXIA



ARRATIAKO ERNAI

Zuen errepresinoak ez gaitu geldituko

Aldarrikapen eguna zan 2021eko maiatzaren 7a Euskal Herriko gazte aske kontzarentzat. Larrialdi egoeran gengoazala salatuteko joan ginan arratiar batzuk Bilbora, eta Hego Euskal Herriko beste uriburuetan be hainbat gazte alkartu ziran. Gazteriarren langabezi egoera sakona, emantzipetako ezintasuna eta gazteok sufriduten doguzan ondorio psikosozialen gorakadea ziran, besteak beste, Ernaik salatuten ebazan problematika nagusiak.

Bihotz Sakratutik Sabin Etxearen aurreko plazara joan ginan "euskal gazteria aurrera" eta "kapitalismoa suntsitu" moduko oihuakaz. Amaierara heldu ginanean, sistema kapitalista heteropatriarkala eta honen aldeko politikak bultzatuten dabezanak seinalau eta argi itxi zan egoera honeri urtenbidea emoteko era bakarra, eraldaketa soziala gauzatu eta burujabuzak irabaztea zala. Irakurketea amaitu eta Sabin Etxeara hurbildu ginan bertako kristaletan gure aldarriak pegau guran. Momentu horretan hasi zan 7 atxilotu eta 60 zauritutik gora itxiko ebazan Ertzaintzaren karga poliziala.

Guk argi daukagu maiatzaren 7 horretan pasau zana ez zala kasu isolatu bat izan. Hau ez da Ernaiko gazteen kontrako muntaia polizial puntual bat, sistema arrakalatu eta honeri aurre egin gura deutsien kontra erabilten dan jazarpen polizial sistematikoa da hau. Bizi garan sistema

kapitalista zisheteropatriarkal hau mehatxatuta sentiduten dan guztietan, "herrien zaintzaileak" diran horreek euren funtzioa beteten dabela ikusi dogu hainbat bider. Horren erakusle argiak dira bortizkeria eta jazarpen poliziala sufridu behar izan dabezan beste hainbat mobimentu eta eragileen bizipenak be. Iruñerriko mobimentu feministeak, SOS Arrazakeriak eta Tubacexeko langileak, adibidez, Ernairen antzeko kasuak bizi izan dabezala ikusi genduan oin dala aste batzuk Bilbon egin zan mahai-inguruan.

Urte eta erdiko kartzela zigorrak eta 20.000 eurorainoko multak eskatuten deutseez egun horretan atxilotuak izan ziran gazteei. Bagilaren 15 honetan epaituak izango dira, eta guk argi daukagu, euskal gazteria bildurtuta eukiteko daukien bide bat baino ez dala. Honen aurrean, argi itxi gura deutsegu gazte burrukea guztiz zilegia dala eta ez gaituela geldituko. Multak ipiniko deus-kuez, jo egingo gaitue eta gu geldiarazoten saiatuko dira, baina guk, gazte burrukeak merezi dauala erakusten segiduko dogu, horretan sinistuten dogu-ta, hori dalako bizitza duinak lortuteko bide bakarra.

Hau dana dala-ta, datorren bagilaren 4an, Bilbon, 17:30ean egingo dan manifestaziorako deialdia luzatu gura dogu. Euskal gazteria aurrean dagoala erakustera goaz eta ezin gaituela gelditu argi itxiko deutsegu.

Aurrera bolie!

Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

Hitanoagaz hasteko aholkuak (IV). Kale berbakunea sustatu guran

Aditz bat hartu eta beragaz alkarrizketa bat sortuko dogu.

Euki aditza:

- Badekok proiekturik oporretarako ala?
- Ba bai, bajekonat bai.
- Parapente egiteko gogoia euki jonat beti eta aurten egin behar jonat!
- Hik badekona amets hori?
- Ba neuk be beti euki joat!
- Bajek(og)une plana orduan!

NETFLIX EUSKARAZ

WWW.PANTAILAKUSKARAZ.EUS

EUSKARAZKO
IKUS-ENTZUNEZKOEN
ALDEKO EKIMENA

Sinatu eskaerea helbide honetan:

<https://www.change.org/p/basque-governments-netflix-netflix-euskaraz-in-basque-en-euskera>

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: begitu@begitu.eus helbidera.

LUMATUTEN

ARANTZA
ETXEBARRIA

Konpromisoa

Konpromisoa. Berba potoa. Pisu handikoa. Sendoa. Indartsua. Ezin deusazu iges egin. Harri astun baten pareko presentzia dauka. Berba luzea da berez, baina luzera horrek ez deusotodasunik emoten. *Maitasun* berbea luzea da, *zoriona* bera be bai, baina ez deuskue barrua bardin astintzen; ez deuskuez besoko uleak lazten.

Konpromisoak telefonoz hartu daitezke, edo idatziz, edo aurrez aurre. Konpromiso berbea entzun, eta sarritan pentsetan dogu dokumentu formal baten, seriotasun handiz esaneko esaldi baten, asko hausnartu ostean erantzundako galdera baten. Baina konpromisoak txikerragoak izan daitezke. Zeozer planteetan dogun momentuan sortzean dira, beste batengan zelangot edo halango espektatibak eragiten doguzanean.

Konpromisoak badauka loturea estutzen dauan soka

bategaz. Konpromisoa eta betebeharrak eskutik doazela esan geinke. Baina batak derrigorrez egin beharreko zeozer dakar beragaz. Besteak, osterak, ez dakar holango kargarik; guk gure berbea emon, beste batek berbea hartu, eta guk berbea jan arren, ez da ezer pasetan, ez dogu jainkoeen zigorrik eukiko, gure etxera ez da gure bila poliziarik etorriko, postontzian ez deuskue isunik sartuko... Bata bete egin behar da, bai edo bai; bestea, ez dago zetan.

Dana dala, konpromiso guztiak ez dira bardinak. Konpromisoen azpimoltoak dagoz, eta guztiak ez daukie entidate bera. Ez da gauza bera konpromisoa hartzea gurasoak jagoteko, beharlekuan beharrrak sasoz emoteko, lagun bategaz oporretan joateko edo laneko kideagaz kaferak alkarrez joateko.

Halanda ze, konpromisoak konpromiso dira, txiker zein handi. Entidate bera euki ez arren, inportanteak dira batzuk zein besteak. Arabere gehiago esango neuke: konpromiso txikiak beteteko kapaz garan neurrian izango gara kapaz handiagoak beteteko be.

ZERTZEAN



Ipar beltza

KARLOS ARETXABALETA

Hara... hara... nire alabatxoa, pirata naizenez gero, jakingo banu haizeak bihar-etzi zer ekarriko duen, gustura itxarongo zintuzket manga laburreko bertsoak edaten; gaur ipar beltza dago, badaezpada kopa ahoz gora jarriko dut, eta ume denboran irakurtzen nizun poema liburua zabalduko dut, gauero bezala.

Sarritan, hasperen fin batek determinazioz hornitzen ninduen orduantxe, eta jauzi egiten nuen bigarren poemara; gauero bezala.

Sarri asko ondoko gelatik negar-marraska fina heltzen zen nire begi lokartuetara; eta zu negarrez hasi; gauero bezala.

Zeure dei zoliak hanpatzen zituen irakurtzen ari nintzen poemaren bertso lerroak; gaur ere orduan bezala, gauero bezala, benetako poesia dastatzen hasi naiz. Zigortuen gotorleku ilun hartara egindako autobus bidaia amaigabeetan bezalaxe.

Zenbat kezka, zenbat buruhauste. Eta hantxe, lekutan, kristalaren beste aldean ikusten zintudan zerurantz begira, begiak itxita zenezukala. Jainkoren bati otoitz egiten? Ez, burdin barren pitzaduretatik sartzen zen eguzkiari otoi eskatzen zeure kondena urteak epeldu zitzaiz; ez da gauza bera.

Bitartean amets egiten jarraituko dut, denborak bere mihise finarekin ingura gaitzan, ume denboran bezala.

Une horren esperoan ametsen gatibu naiz. Gatibu naiz ametsetan. Gatibuen ametsa naiz. Ametsak preso-zainak dira. Loa, ordea, kartzelarik seguruena. Ametsen gatibu naiz; batzuetan zorionsu, hala ere.

* Zertzean atalean argitaratzen doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera ereduari ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezkerot, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Zaleak ginala jakin arren, batzuk ointzu jakin dogu ze oinarritzkoak diran rock kontzertuak geure bizitzetan, eta zenbat lagunduten deuskuen bizitzeko behar dan indarrari eusten. Aurten badirudi, eskasia sasoi-etako gosea asetu eta *Summer of Rock* bat bizitzeko aukerea eukiko dogula.

Musikeak, errebeldia adierazoteko, sentimentuak konpartiduta jentea batzeako eta iraultzaren hazia eriteko daukan kapazidatea agerikoa da, eta horregaitik egoten da totalitarismoen jopuntuan. Totalitarismo latzenetan, musikea edo musika estilo batzuk galarazota egoten dira.

Summer of Soul dokumentalak 1969ko Harlemgo udako musika jaialdia jasoten dau. Hunkigarria eta argigarria da. Orduko sasoiari, Harlemgo komunitadeara, funtsezko aldaketa momentu baten egoan eta soul, blues, gospel eta r&b musikeak, baltza izatearen harrotasuna eta sistema erraztitan bizi izanda be, Estatu Batuetako jente baltzaren kulturea, indarra, bizitzeko gogoa eta iraultza baketsurako nahi sendoa erakusten dau. Holangoa zan publikoa eta hori eukan Nina Simone, Gladys Knight, Mahalia Jackson, Stevie Wonder, Sly Stone eta musikearen beste jentiu askoren musikeak.

2022ko uda *Summer of Rock* bat izan behar da. Tarte luzea egon gara kontzertu barik, eta kontzertuak baimentzen hasi ziranean, rock musikeak ez eukan lekurik; bere izakerearen kontra egoalako aulki baten, besteakaz distantziak gordez entzun eta jotea. Baina bueltau dira kontzertuak, Arratiara eta Europara. Rock uda oparoa izan daigula!

Areatza Musik & Beer.
Argazkia: Zazu Fotografia.



Gorosti
LORAZAINTZA
Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com

BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39
Fernando 699 29 67 17
Eduardo 647 72 96 24
Arkaitz 677 46 40 91
Golder 666 58 20 06
Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com

agoa
hagin klinikak
Ortodontzia
Implanteak
Estetika
Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia
Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Idazgela Zerbaita 101
R.P.S. 21/06

UBIDE

Ubideko Herriko Taberna Repsolen gidan sartu da



Erredakzioa

"Solete" izentapenagaz sartu da Ubideko Herriko Taberna Repsol gidan. Aurretik gastronomiakazetari bat egon zan jaten eta aprilean jakin eben izentapenaren barri tabernakoek. Lagunei gomendatzeko moduko, bidekurutzetatik 10 minutu baino gitxiagora dagozan jatetxeei emoten

deutse Repsolek Solete izeneko errekonozimentua.

Siziliako Katja Vaccarok eta Lanzaroteke Miguel de Tenak gobernetan dabe taberna 2019tik eta poz handiz hartu dabe Repsol gidan egotea, ez bakarrik egindako lanari errekonozimentua dalako, baita "herriari bisibildadea emoten deusalako" be, Tenak BEGITURI azaldutakoaren arabera.

IGORRE

Emakumeak lehen lerroan pastoralara taularatuko dabe Igorreko eskolako ikasleek

Erredakzioa

Bagilaren 3an, 16:00etan, Igorreko eskoleak eta Loraldia alkarteak prestatutako pastoralara egingo dabe publiko aurrean 6. mailako ikasleek. *Emakumeak lehen lerroan* antzezlanak andren espazio publikoaren eskuratzea kontetan dau, hiru momentu, hiru leku eta hiru personajeren bidez.

Ikasturte osoko lana da. Naia Arantzamendi gidoigile ondarrutar gaztearen gidoiagaz, seigarren mailako hiru tutoreak eta Loraldiako dinamizatzailea Erika Uranga, ikasleak egon dira lanean ikasturte osoan ikuskizuna aurrera aterateko. "Batzuek musika egiten dabe, beste batzuek *atrezzo*a, beste batzuek antzerkia, beste batzuek bertsoak... bakotzak bere lana hartu dau eta gu lagunduten egon gara" azaldu deutso BEGITURI Ibon Iza seigarren mailako tutoreak. Seigarren mailako hiru gelak; hau da, 58 umek, hartu dabe parte, Zuberoako pastoralaren egitureagaz, disziplina ugari batzean dituan ikuskizun honetan.

Debekutik iraultzara, espazio publikoaren konkista

Pastoralaren lehenengo zatian sorgin ehiza tratetan da, eta orduko

sasioan andra sortzaileek jasan dako jazarpena. Izan be, 1452an, Bizkaiko Foruak, profazadoren, -eresiak bat-batean kantetan ebezan andrak- presentzia publikoa galarazo eban, andrak espazio publikotik ateraz. Personajea Graziana Barrenetxea da, Inkisizinoak sutara kondenau eban andra bat. XVII. mendean Zugarramurdiko plazan kokatzen da istorioa.

Pastoralaren bigarren zatia Maurizio Aldeiturriagaren gainekoa da, eta kontetan dau "zelan andra bat, bera konturatu barik be, iraultza egiten egoan" dino Ibon Izak. Iraultza zan-eta, espazio publikoan jardutea eta bere burua goratzea. Egiako plazan 1978an dago kokatuta.

Hirugarren zatia, Maialen Lujanbioren gainekoa da txapela irabazi eta ekarpen handia egin daualako feminismoan eta bertsolaritzan: iraultza. Istorioa 2017ko abenduan, Bertso txapelketako finalean dago kokatuta.

Hiru momentutako hiru andra, berbea eta espazio publikoaren bila: "Grazianak ez eban berba egiteko aukerarik izan, Maurizioak bere burua aupatu behar izan eban eta Maialenek barriz, bertsolaritzaren tradizio errotuagaz apurtutea lortu eban, bidea zabalduz".

Hamar eguneko jaiak Igorren

Erredakzioa

Urte biko etenaldiaren ostean, bueltau dira kontzertuak, kuadrillen arteko jokoak, lehiaketa gastronomimokoak, herri bazkaria... berba baten: jaiak! Eta Igorrek hamar eguneko egitarau potoloa prestatu dau, Arratiako herrietako jaiari hasikerea emoteko.

Zapatu bietan, hilak 11 eta 18, herrietara bueltetako autobusa egongo da 02:30etan eta 05:00etan, autobusen geralekuan. Galazota, Gozategi, Zirkinik bez eta Karibe Mixen kontzertuak egongo dira lehenengo zapatuan, eta Zeinke, Skakeitan eta DJ Jotatxo bigarrenetan.

Bagilak 10, barikua

17:00etatik 20:00etara, Saharais en Arratia alkarteak egindako jakien dastaketea, Goiko plazan.

17:00etatik 18:30era, ume eta gazteentzako jolasak Zaztarrakaz, Goiko plazan.

18:30ean, euskal jantzak ume zein helduentzako, Arantzarte jantza taldearen eskutik, Goiko plazan.

18:55ean, argazki herrikoia udal-txeko balkoitik.

19:00etan, txupinazoa Kepa In-txaustiren eskutik. Bitartean, jubiladuen alkarteak prestatuko dauan merienda. Ostean, Larrain jantzea Arantzartegaz, Goiko plazan.

19:25ean, kuadrillen argazkia, Goiko plazako frontoiko harmailetan.

19:30ean, Kuadrillen arteko olinpiadak: Errelebo jokoak.

20:00etan, Elektrotxufila elektrotxarangea, Goiko plazan hasita.

23:00etan, kontzertuak: Lukiek, Ezpalak eta Akerbeltz.

24:00etan, Playback lehiaketea. Izena emoteko azken eguna bagilaren 6a. Bialdu kuadrilla partehartzailearen izena eta kantea *igorrekojaibatordea@gmail.com* helbidera.

Bagilak 11, zapatua

08:30ean, ermitetatik kantu-birea jubiladuen alkarteagaz, jubiladuen txokoa hasita.

12:00etan, Paella Txapelketea, txosnagune ondoko landan. Paellarik onenari euskal produktuen otzarea.

14:30ean, paellen aurkezpena.

18:30ean, GOTx elektrotxarangea.

20:00etan, Luis Iruarizaga Abesbatza, Sanfran Korue eta Irutasun Abesbatza Kultur Etxean.

22:00etan, kontzertuak: Galazota, Gozategi, Zirkinik bez eta Karibe Mix.

Bagilak 12, domekea

12:00etan, gazteen eskupelota partiduak, Goiko plazako frontoian.

17:30ean, Arantzarte eta Kittu taldeakaz kalejireia.

18:00etan, Arantzartegaz jantza emonaldia, Goiko plazako frontoian. Animau baserritar jantzita joaten!

Bagilak 13, astelehena

10:00etatik 12:00etara, umeentzako jolasak Zaztarrakaz: ginkana herrikoia, Lasarte parkean hasita.

11:00etatik 14:30era, Txutxu tren, AMEren eskutik, txosnagunean hasita.

12:00etan, bits-festa, Lasarten.

12:30ean, mezea. Ostean, Musika Eskolako trikitilariakaz kalejireia.

17:00etatik 19:30era, Txutxu tren, AMEren eskutik, txosnagunean hasita.

18:00etan, *Chef Nature* antzezlan, Goiko plazako frontoian.

Bagilak 14, martitzena

17:00etan, umeen karaokea, Lasarte parkean.

19:00etan, Musika Eskolako konboen emonaldia, txosnagunean.

Bagilak 15, eguaztena

17:00etatik 18:30era, umeentzako egur jolasak, Lasarte parkean.

17:00etatik aurrera, Ludotekea kanpoan, Lasarte parkean.

17:00etan, 18:00etan eta 19:00etan, Musika Eskolako bakarlariak eta kamara musika, Kultur Etxean.

17:30ean, goitibehera tailerra, 12 urtetik beherako gazteentzat, institutu ondoko bidegorrian. Kaskoa eroatea beharrezkoa da.

19:00etatik 21:00etara, zunba, txosnagunean.

Bagilak 16, eguena

17:00etan, nesken pala partiduak, Goiko plazako frontoian.

18:00etan, Astrapalea Rock Eskolaren emonaldia, txosnagunean.

19:00etan, Karropotea herrian zehar.

21:00etan, kuadrillen afaria, txosnagunean. Txartelak Kukuman eta Herriko Tabernan (5 euro). Azken eguna: Bagilak 10. Mozorrotuteko gaia: musika festibalak.

*Alergiarik, intolerantziarik edo bes-telako menurik behar izan ezker, idatzi *igorrekojaiek@gmail.com*-era bagilaren 10a baino lehenago).

Ostean, DJ Feministrak.

Bagilak 17, barikua

17:00etan, Saharais en Arratia alkarteak egindako jakien dastaketea, txosnagune ondoko landan.

17:00etan, Patata-tortilla Txapelketea, txosnagune ondoko landan.

Tortillea kipuladuna zein kipulabakoa. Aurkeztuten dan tortilla bakotxeko 3 euro ordaindu behar da. Patata tortillarik onenari saria: euskal produktuen otzara eder bat.

18:30ean, Orkresta elektrotxarangea, txosnagune ondoko landan hasita.

19:30ean, tortillen aurkezpena.

23:00etan, kontzertuak: Herdoil, Nafarroa 1512 eta Gora Herria.

IGORRE

Bagilak 18, zapatua

09:00etatik 14:00etara, Neska Alebinen Futbol Txapelketea, Urbieta kirol zelaian.

12:00etan, Eingo taldeagaz kantu-poteoa, herrian zehar.

14:00etan, herri bazkaria, eskoletako aterpean. Txartelak Gauloran eta Herriko Tabernan salgai (Nagusiak 15 euro, umeak 10 euro). Eros-teko azken eguna: bagilak 12.

*Alergiarik, intolerantziarik edo bes-telako menurik behar izan ezker, idatzi *igorrekojaiek@gmail.com*-era bagilaren 12a baino lehenago).

Gero, Eingo taldeagaz bazkalostekoa.

16:00etatik 18:00etara, Bizkaiko Rugby Txapelketea, txosna ondoko rugby zelaian.

17:30ean, Rally umoristikoa, eskolatan hasita.

18:00etan, Txingones de la Rencle taldea, Lasarte parkean.

23:00etan, kontzertuak: Zeinke, Skakeitan eta DJ Jotatxo.

Bagilak 19, domekea

14:30ean, jubiladuen bazkaria, eskoletako aterpean.

19:00etan, jubiladuen Karta Txapelketetako sari banaketea, Lasarte parkean.

19:30ean, Jokaldi Lasarte parkean. Bitartean, kuadrillen arteko sari banaketea: online. Saria 300 euro bonoetan.

Amaitzeko, txokolatea AMEren eskutik, Lasarte parkean.

Gezalako jaiak

Igorreko Gezala edo Basauntz auzoak be ospatuko ditu jaiak bagilaren 3 eta 4an. Barikuan film emonaldia eta zapatuan, lehiaketak egunean zehar, eta gauean erromeria egongo dira.

Bagilak 3, barikua

21:30ean, film emonaldia Gezalako plazan, *Erlauntza* pelikulea. Ikusleen artean txokolatea eta bizkotxoak bananduko dira.

Bagilak 4, zapatua

11:30ean, argazki erakusketea.

11:30etik 12:00etara, Paella eta Tortilla Txapelketetarako izen emotek.

12:30ean, umeentzako tailerrak Urtxintxa eskolak dinamizauta.

14:00etan, tortillen aurkezpena.

14:30ean, paellen aurkezpena.

16:00etan, Briska eta Mus Txapelketetarako izen emotek.

16:30ean, Briska eta Mus Txapelketak.

16:30ean, umeentzako jolasak Urtxintxa eskolak dinamizauta.

18:00etan, Kittu taldeagaz erromeria. Erromeria amaitu eta gero, parrilladea egongo da bertan dagozantzat.

ARRATIA

Ekologistek mobilizazioak egin ditue Arratiako mendietatik tensino handiko linea bertatik pasau ez daiten

Maiatzaren 10ean, berbaldiak eta plataformea sortzeako deialdia, eta 29an, Mandoiara mendi martxea antolatu eben Makatzak Arratiako Ekologistak taldekoek Aramotz eta Mandoiatik tensino handiko linearik ez pasetea aldarrikatzeko.

Erredakzioa

Arduradun politikoak salatutako kanpaina bat abiatutako asmoa be agertu dabe. Izan be, ekologisten eretxian kalte handia egingo deutesen inguruari, ondareari eta jentearen osasunari tensino handiko linea aurrera doa: hainbat torre eregita dagoz eta kableak urrietan sartzea leitekena da.

Arratiako mendietatik pasauko dan Gueñes-Itsaso tensino handiko linea, sano proiektu opakua dala esan eban Igor Bernaola Makatzak taldekoak proiektua azaldutako eta kontra egiteko plataformea sortzeako deitutako bileran. Proiektu handi honen bitartez, elektrizidadea Frantziara eroango da eta Europako sareakaz interkonexioa egingo da. Bertan be egon zan Alvaro Campos EHUko irakaslearen arabera, transizino energetikoan, energia fosilen eredia mantenidu gura dabe holan; hau da, norabide bakarrek sistema, kontzentratuak eta gitxi batzuen eskuetan dagoana, eta energia eolikoak ezaugarri bardinak euki ez arren, eredu bardinean ustiatzeko (leku baten asko ekoiztu eta gero banandu) izango litzatekez linea honen moduko azpiegiturak.

Red Eléctrica Española (REE) 2009an hasi zan Gueñes-Itsaso linea tramitetan eta 2021erako amaituta egon behar zan. Ez dago



amaituta, baina aurrera doa. Hasikeran, 26 udalerri hasi ziran proiektuari kontra egiten, baina egun, udal moduan, Igorre eta Mallabiako udalek bakarrik jarraituten dabe errekursoak sartzean. Momentu haretan ez zan plataformarik sortu eta plataforma barik udalerri eta alderdi bakotza bere aldetik ibili da. Plataformearen helburua kaltetuak izango diran herri guztien burrukak bateratzea izango litzateke.

Kronologia

2009an hasi zan REE tramiteak egiten eta 2011n udalerriek eta norbanakoek alegazioak egin eta herri mailan, antolatzen hasi ziran. 2012an, REE aurkeztu eban ingurumen inpaktuaren azterketea, proiektuak aurrera eginez. 2017an, behin betiko proiektua aurkeztu zan; Igorre inguruan proiektua legez kontra dagoala adierazo eban Igorreko Udalak eta

REE ordezko trazadura aurkeztu eban Aramotzetik. 2020an, baimen administratiboa lortu eban REE eta Igorreko Udalak proiektu osoaren kontra salaketea sartu eban epaitegietan. Ebazpenaren zain dago. Foru Agindu bat be egon zan 2020an, eta bertan, REE Bizkaia osoan autopista elektrikorako ez daukala baimenik esaten jako. REE errekursoa aurkeztuta dauka epaitegian. Bitartean, proiektuak aurrera darrai.

Udalak tensino handiko linea gelditutako baliabide guztiak erabili eta bide guztiak agortuko dituen arren, torreak eregiten hasi da REE eta kableak urri lehengoaren inguruan hasiko dirala ipinten uste dau Igorreko alkateak.

Makatzak taldeak be salaketa bat ipini dau Europako Batzordean, sai zuriaren babeserako Europako arauak ez ditualako beteten REEren proiektuak.

ZEANURI

Zeanuri Loran hastear dago

Erredakzioa

Bagilaren 15ean hasiko dira epaimahaikoak pisu eta etxeetako balkoiak eta etxe bakarretako eskailerak ikusten lorarik ederrenak dituenak sarituteko. Atal bi daukaz txapelketeak, pisuetako balkoiak eta etxeetako balkoiak,

hain zuzen be. Atal bakotzeko irabazleak 200 euroko saria izango dau eta bigarrenak 100 eurokoa.

Etxe eta pisuetako lorez gainera, orturik onenak be saritu gura dauz Zeanuriko Udalak. Garagarriaren 1ean hasiko dira epaimahaikoak baloretan ortuok, landuena sarituteko.



ARANTZAZU

Bagilaren 2an zabalduko da barriro Herriko Taberna

Erredakzioa

Inaugurazioa bagilaren 2an, 18:30ean izango da. Barikutik aurrera afari eta bazkariak emongo ditue, astegoienetan mus txapelketak eta udagoienetik aurrera, Udalgaz batera, ekintza kulturalak antolatutako asmoa daukie, kontzertu txikiak, tartean.

Kartea barriztau eta ilusino handiz zabalduko dabe taberna Karinak eta Alexanderrek. Aurreko arduradunagaz egon zan beharrean Karina eta ezetuten dauz



lekua eta bezeroak. Herritarrek be pozik hartu dabe barria; izan be, taberneak bizitasun handia emoten deutso herriari eta herritarren topaleku be bada.

ARRATIA

Egin eta Ekin BFAko ekintzailtza programako bigarren saria jaso dau Arratia Institutuko lan batek

Erredakzioa

Amets Bilbao, Anje Egileor eta Txomin Gorrotxategi Arratia Institutuko DBH 4. mailako ikasleen Arratia forestal izeneko negozio plana izan da saritua. Goiatz Bideguren irakaslearen laguntzeagaz, mendiak mantentidutako enpresa baten plana azalduten dau. Ikasurte honetan, 37 ikastetxetako

1.325 ikaslek hartu dabe parte programan. Sari banaketea maiatzaren 20an izan zan BECen.

Egin eta Ekin Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailaren programea, Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoko ikasleei zuzenduta dago. Parte hartzean daben ikasleen negozio planetan, "egiten ikastea eta ekitea, ebatziak hartzeako eta erantzukizunak bere-

ganatzeko ekimena izanik, ahalegina eta zailtasunei aurre egiteko ahalmena" baloretan da.

2008an abiarazo zan programa hau, eta ikasurtean zehar, gaitasun personalak garatutako tailerak, berbaldiak eta enpresetara bisitak programetan ditu. Parte hartzean daben ikasleek enpresa praktika bat garatu behar dabe ikasurtean zehar. DBHko lehen



Arratia Institutuko ikasleak.

zikloan *Asmakuntza* tailerra lantzean da, eta bigarren zikloan eta

Batxilergoan, negozio plan bat garatu behar izaten dabe.

ZEBERIO

Lau egunetako egitaraua prestatu dabe Ermitabarri auzoko jaietarako

Erredakzioa

21:30ean, OstKda elktrotxarangea.

Zeberioko Ermitabarri auzoak San Antonio jaiak ospatuko ditu bagilaren 10etik 13ra eta horretarako jarduera ugari antolatu ditu Iturripe alkarteak.

Esti eta Olatzen kontzertua, Etxebarria aita- seme trikitilarien erromeria eta trikipoteoa, eta elektrotxarangek alaituko dabe giroa musikeagaz. Jana be ez faltauko; sardina jana, herri bazkaria eta meriendea, eta txokolatea egongo dira. Jolas eta kirolei jago kienean, umeentzako puzgarriak eta tailerrak egongo dira, pelota partiduak, plater tiroa, eskaladea, bola jokoa eta pato lasterketea. Pato lasterketa bi egongo dira, baten helduek hartuko dabe parte eta bestean umeek, errekan plastikozko ahateakaz.

Egitaraua

Bagilak 10, barikua

18:00etan, txupinazoa.
18:30ean, pelota partiduak.
21:00etan, sardina jana.

Bagilak 11, zapatua

11:00etan, puzgarriak eta umeentzako tailerrak.
13:15ean, joaldunak Otxandategi Dantza Taldea.
15:00etan, herri bazkaria.
16:00etan, plater tiroa ehiza eta arrantza alkartearen eskutik.
18:00etan, kutxa eskaladea.
18:30ean, bola jokoa.
19:30ean, herri meriendea.
19:30ean, Elektrokela elektrotxarangea.
22:00etan, Etxebarria aita- seme trikitilariak.
01:00etan, txokolatea.

Bagilak 12, domekea

12:00etan, helduen pato lasterketea.
12:15ean, umeen pato lasterketea.
13:00etan, trikipoteoa Etxebarria aita- semeen eskutik.
18:00etan, kontzertua. Esti eta Olatz.

Bagilak 13, astelehena

13:00etan, mezea ermitan.
13:30ean, barauskarria.

AREATZA

Bertatik pasautakoen kantuak jasoten dauan disko bat atera dau The Quiet Cornerrek

Erredakzioa

The Quiet Corner Areatzako euskal-irlandar taberna bat baino gehiago da, kultura egitasmoa be bada eta ekoiztu barri dau disko bat. Bertan, The Quiet Corner tabernan jo daben 10 talderen kantuak jasoten dira. Highlanders, Cosh & Duran, Confluence, Euskelga, Four Friends, Funk Collective, Iker Piris, Los Blues Morning Singers, Los Brazos eta Xuxurlaka taldeen kantuek osotuten dabe diskoa. CD formatuan, 12 euroko prezioan; eta *pendrive* formatuan, 15 eurokoan, dago salgai. Jasotako dirua, AEFAT alkartearentzat izango da. Alkarte honek, ataxia telangiectasia gaixotasun sendaezinak jotako ume eta gazteak dituen familiak batzean ditu.

Xabier Lete gogoan

Xabier Leteren omenez, berbaldi bi eta musika eta poesia saio bat antolatu ditu The Quiet Cornerrek. Maiatzaren 26an Eugenio Ibarzabalek *Nik ezagutu dudan*



Xabier Lete izeneko berbaldia emon eban eta bagilaren 1erako, 19:30ean, beste berbaldi bat dago programauta, Xabier Aierdik Leteren ikuspegi dialektikoaz jardungo dau, Izarren hautsa kantuenaren hitzetik abiatuta. Hurrengo egunean, bagilak 2, 19:30ean, "arratiarren aho eta taupadetan" Leteren musika eta poesiaren emonaldia egongo da.

Jokin Bildarratz: "Ikastetxe bakoitxak bere errealidadeari erantzuna emon behar deutso"

Hezkuntza lege barria aurrera aterateko, akordio zabala funtsezkotzat jotzen dabe Jokin Bildarratz Hezkuntza

Sailburuak eta Begoña Pedrosa Sailburuordeak.

Erredakzioa

Horretarako lanean dabiz eta apirilaren 7an, lege barriaren proiektuaren dokumentu bik Legebiltzarren %90agaz onarpena lortu eben. Hezkuntzak emaitzak epe luzean emoten dituala eta legeen egonkortasuna defendidu eben Jaurilaritzakoek Lemoan, maiatzaren 20an, XXI. mendeko hezkuntzaren oinarriak izeneko berbaldian.

Onartutako dokumentuek, lege barriaren oinarriak eta hurrengo 12 urteetan hartu beharreko neurri zehatzak dakarrez. Bildarratzen arabera, legeak sei ardatz daukaz, honako honeek: ikasleak, ikastetxeak, irakasleak, euskerea, gobernantzea eta eraldaketa pedagogikoa.

Ikasleari jagokonean, "heziketara integrala, persona ona izan daitela, gizartean biziko dana eta profesional ona izango dana" gura dabe lortu lege barriagaz. "Hezkuntzaren ardatza, iparra, erdigunea ikaslea da, hemen baldin bagagoz ikasleagaitik da" esan eban Hezkuntzako Sailburuak. Hezkuntzaren aurrekontua 3.200 miloitakoa dala esan eban, bigarren handiena. Ikasle bat, Hezkuntza sistemearen barruan, bere bizitzaren %8-15 egoten da. Beste denpora guztia egongo da edo ikastetxetik kanpo, edo bere etxean... Horregaitik hezkuntza formala eta ez formalaren arteko buztarketea oinarritzakoa da.

Erkidegoan 1.222 ikastetxe dagoz Hezkuntzan, era askotakoak. Hor sartu daiteke Musikene, goi mailako musika zentroa, edo 0-2 urte arteko hezkuntza. Administrazioak ezin dauala hori modu zentralizatuan kudeatu esan eban Bildarratzek eta horregaitik ikastetxe bakoitxak autonomia izan behar dauala, zuzendaritza taldeen lidergoagaz. Ikastetxeetako zuzendaritzakaz bilerak modu sistematikoa egin dabez. "Euki behar doguz liderrak, euki behar doguz klaustro inplikauak eta baita guraso inplikauak be. Ikastetxe bakoitxak euki behar dau bere Hezkuntza proiektua". Izan be, ikastetxeak bere "ekosistemeari" erantzun bat emon behar deutso. Ikastetxeen autonomia aitatzen da indarrean dagoan legean baina Pedrosaren

LEMOA

Ikastetxeak euskerearen "arnasgune" dirala gehitu eban Bildarratzek.

Gobernantzea eta deszentralizazioa

Ikastetxe eta udalen arteko lana sustatu gura dabe hainbat esparrutan, euskerea eta gizarte kohesioa tartean. "Hainbat zaurgarritasun edo diferentzia aitatzen diranean, honeek (udalak) izan behar litzatekez gune interesgarriak". Hori dala-ta, Hezkuntzan lanean dabiz tokiko batzordeak sortzeko, horreetan alkatu daitzean herriko ikastetxeak, herriko alkate eta zinegotziakaz, hainbat gai jorratzeko (hizkuntzea, kirola, eskolaz kanpokoak edo herrian kontuan hartu beharrekoak).

Barrura begira be gobernantza aldatu beharra aiatu eban Sailburuak. Hor gurasoen inplikazioaren garrantzia azpimarratu eban. Figura barri bat be sortuko dala esan eban, kontratu programa izenekoa. Ikastetxe batzuk, "ekosistema zail baten" dagoz eta premia bereziak ditue. Horretarako dago kontratu programa, behar bereziei erantzuteko.

Eraldaketa pedagogikoa

Alde batetik LOMLOE dago eta horrek esan gura dau uri lehenengotik aurrera, ikasturte bakoitietan aplikauko dala curriculum barria. Madrirek finkatzen dau curriculumaren %50a eta Jaurilaritzak beste %50a. Ikastetxe asko aspalditik dabiz LOMLOE horrek eskatzen dauan moduan jarduten; hau da, kompetentzien bidez, moltsoka, proiektu... batez be Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan. Ebaluaketa eraldaketea egon daiteke. Pedrosak Arratiako ikastetxeetan egindako lan ona aiatu eban.

Eraldaketa handiena "errealidadearen ikuspegi pedagogiko bateatik" datozala esan eban Bildarratzek; izan be, errealidadeak oso desbardinak dira, ikasleak be bai eta gero eta lehenago antzematen dira autismo eta dislexia modukoak. Baita arazo emozionalak be. Onartu barri dan eraldaketa digitala Hezkuntza munduan, gobernuaren proiektu estrategiko bat da, eta LH 5.etik Batxiler 2.eko bitarteko ikasle guztiei ordenadore bana emon jakie.



CAROLINA CLEMENTE

"Sexu langileok klase sozial bat osotuten dogu, sistemeak zapaltzen dituan beste andra batzukaz batera"

Noka talde feministek eta Arantzazuko Udalak prostituzinoaren gaineko berbaldi bi antolatu ditue, prostituzinoaren eztabaidearen alde bietako hizlariakaz. Aprilaren 27an, Carolina Clemente egon zan sexu langileen eskubideak defendiduten, eta bagilaren 17an, Amelia Tiganus egongo da abolizionismoaren alde.



Erredakzioa

Clementek, *Sexu langileak, klandestinoak ala eskubideen jaube?* tituluko berbaldian, prostituzinoa galarazoteak ez dauala prostituzinoagaz amaituten, horretara dediketan diranak egoera oindino okerragoan ipinten baino, esan eban eta lege eta arau diskriminatzaileez, estigmatz eta burrukaz egin eban berba.

Carolina Clemente, Bartzelonan jaio zan eta EAEn bizi da 2020ko urrietatik. Filologia Frantsesean lizentziadua, Psikologian graduadua, Psikoterapiako master bat egiten dago egun. Sexu langilea eta Putxs en lucha-ko taldekidea da.

Zer da Putxs en lucha? Noz sortu zan?

Sevillako Prostituten Kolektiboaren sorreraren ondorioz jaio zan: gu, Andaluzian bizi ez arren, oso ados gengoan Sevillako Prostituten Kolektiboaren ildo ideologikoagaz, sexu lanaren irakurketa soziopolitiko eta ekonomikoagaz, beti be klase ikuspegitik, ikuspegi antierrazista, feminista eta antikapitalista bategaz. Horregaitik, eurekaz lankidetzan hasi ginan beste uri batzuetan bizi arren. Gero, talde bat egitea ebatzi genduan.

Sindikatuakaz be egiten dogu behar (ni, adibidez LAB sindikatuan nago), oso ondo dakigulako andra asko prostituzinoan dagozala enplegu feminizaduen lan baldintzak txarrak diralako.

Kolektibo moduan 2021eko martian hasi ginan beharrean. Gure helburuak gainerako sexu langileen kolektiboen berberak dira: lehenik eta behin, personen salerosketaren biktimetako babesa eta eskubideak; bigarrenik, lan aukera ekonomiko errealistak sexu lana itxi gura daben personentzat; eta, hirugarrenik, gure jardura lan moduan onartzea; hau da, kalean lan egiten daben lankideei eta euren bezeroei isunak ipinteari ixtea, beste batentzat lan egiten daben lankideek legetresna bat izan dagien abusetatik babesteko. Azkenik, gu diskrimineteari ixtea be aldarrikatzen dogu, gure eskubide zibilak kendu egiten deuskuez-eta —seme-alaben zaintza, esate baterako—, eta sistema medikuan be diskriminetan gaitue. Eta gizarte-estigma elikatzen daben kanpainak egiteari ixtea be eskatzen dogu.

Zure berbaldiaren izenburua, "klandestinoak ala eskubideen jaube?" zan. Prostituzinoa aboliduteak, prostituzinoagaz

amaitu beharrean, klandestino egingo leukela uste dozu?

Herrialde abolizionistetan ez da amaitu prostituzinoa. Sexu zerbizuen iragarkiak hirukoitzu edo laukoitzu egin dirala frogatzen daben azterlanak dagoz. Gertatu dana da, uri batzuetan, Stockholmen, esate baterako, kaleko prostituzinoa etxeetara pasau dala, ostendu egin da. Zuzenbide penala apliketeak prostituzinoagaz amaituteko balioko baleu, Estatu Batuetan ez litzateke prostitutarik egongo, baina hori ez da holan. Estatu Batuetan gertatzen dana da kartzelak andra pobreez beteta dagozala. Abolizionismoak, andrea zigortu gura ez dauan arren, prostituzinoa desagertu arazo ez, eta baldintza ezkutukoagoetara eta prekarioagoetara erooten ditu andrak. Frantzia berbarako, Parisko Boloniako basoan bezero bila dabizen andra asko hiltzen eta erasoten dabiz, eta Suedian, kalteak murrizteko programak egiteari itxi jako, tartean, langileei preserbatiboak bananduteari.

Abolizionismoa oso perbersoa izan daiteke. Suedian, esaterako, horren arabera, biktimak garanez eta gure lana autolesino baten parekoa danez, pentsetan da sexu langilea ez dala gai seme-alabak

hezteko, eta zaintza kendu egiten jakoz. Bere burua biktimatzat hartzean ez dabenak psikopatologian sartzean dira, eta etxebizitza baten jaubeak baldin badauki bere maizterra prostituta dala, kalera bota behar dau, ezpabere proxenetatzat hartu eta estaduak bere jaubeteagaz geratzeko arriskua izango dau.

Andra asko prostituzinora behartzen dauanagaz amaitu gura bada, pobreziaren feminizazioaren kontra burruka egin behar da; sexu langile asko enplegu prekario feminizaduetatik datoz, lan baldintza esplotatzaileakaz. Lan horreek ez ziran nahikoa gastuei, familia erantzukizunei edo zorrei aurre egiteko. Hau da, lan bazterketearen kontra egin behar da burrukan. Trans kolektiboak, %85eko langabezia dauka, beste kolektibo diskriminatu batzuek be, langabezia tasa handia daukie, kitanuek esate baterako. Persona salerosketaren biktimak erkidegotik kanpoko personak dira, eta, Europara etorri ahal izateko, sarritan krimenaren munduko persona bategaz zorpetu dira eta egoera horretatik iges egiteko, salaketea ipini behar dabe, askotan euren bizitzak eta familiakoenak arriskuan ipiniz.

Prostituzinoagaz, abortuagaz lege gertatzen da, galarazoteak egoera prekarioetan eta ahulenetan dagozan andrak arriskuan ipintea dakarrela.

Orduan, atzerritartasun legea kentzea izango litzateke lehenengo pausua?

Salerosketako biktimek gure herrialdeetan gelditzeko eta babesa izateko aukerea izan beharko leukie, eurentzat eta euren familientzat. Prozesu osoan, laguntza administratiboa, psikologikoa edo medikua bermatu beharko litxakie. Legeak emoten dauan kompensazio ekonomikoa be emon beharko litxakie. Human Rights Watch-en txosten batek salatuten dau salerosketa sare bateko ondasunak konfisketan diranean ez dala jakiten non geratuten dan diru hori, legezko jaubeen boltsikoetara joan beharko litzatekena.

Bigarrenik, lan aukera errealistak

gura doguz sexu lana itxi gura dabenentzat. Jakina, andra batek ez leuke sexu lanera jo beharko bere borondatearen kontra. Horregaitik, guraso bakarreko familientzako laguntza gehiago gura doguz, trans eta beste kolektibo batzuen gizarteratze eta laneratzea, eta atzerritartasunari buruzko legea indarbakotzea.

Hirugarrenik, prostituzinoan jarduten dogunontzako eskubideak gura doguz: beste batentzat lan egiten daben lankideek legetresna bat izan dagien abusuak geldiarazoteko; eskubide osoko herritar moduan onartuak izateko eta nomina bat izateko etxebizitza bat alokatzeko, gaixotasunagaitik edo haurdunaldiagaitik baja hartzeako eskubidea izatea, gizarte segurantzzea, langabezia, oporrak... edozein langilek dituan eskubideak.

Espanian lortu dan gauza bakarra da Bartzelonako Udalak bere ordenantzzea apliketeari ixtea. Trías alkate egon zanean onartu zan bezeroei eta prostitutei isuna ipinten eutsen ordenantzzea. Ikerketa bat egin eban Generak, eta Bartzelonako Udalak, Ravaleko prostitutakaz bakarrik, milioi bat euro jaso eban. Kopuru horren erdia baino gehiago salerosketaren biktimen isunetatik. Bartzelonako prostituten %10 bakarrik hartzean dabela kalkuletan dau Generak, beraz pentsau Bartzelonako Udalak zenbat diru irabazi leiken gure lankideen kontura! ordenantzzea ez zan bakarrik bezeroak hartzean apliketan, baita auzoan paseoan ebizala be bezero ez ziran gizonakaz, familiako bategaz, esaterako, edo zaborra botaten joaten ziranen. Zorionez, Ada Colauk uko egin eutsan ordenantza hau apliketan jarraitzeari. Abolizionismoak proxeneta lobbyaren alde egitea leporatzen deutso Colauri horregaitik. Ez dauka ezelango zentzurik.

Zein herrialdek ditu legerik onenak sexu langileentzat?

Zelanda Berriak. Kalean bezeroak hartu ahal dira, eta bakarrik 4 personak egin leikie lan espazio berean. Holan, prostituzinoaren kontura norbaitek dirua irabaztea

galarazoteaz gainera, kooperatibismoa sustatzen da. Erregistroa eta osasun kontrolak be ez dira derrigorrezkoak, galarazo egiten dau profilaxi bako praktikak egitea, eta, bermatu egiten dau edozein momentutan ezezkoa emotea.

Legeria hau sexu langileek euren lagunduta idatzi zan, horregaitik jasoten ditu hain ondo sexu langileen preminak.

Prostituzinoaren %90 pertsonen salerosketea dala esan da. Zuk beste kopuru batzuk emoten dozuz. Zure ustez, prostituzinoaren zenbatekoa izan leiteke salerosketea?

Kopuruak ez dodaz nik emoten, NBEk emoten ditu. Txosten baten, salerosketearen biktima guztiak kontabilizau ebazan, eta, jakinda, zenbatutakoak zati bat baino ez zirala, kopuru hori 20 aldiz biderkatu eban, eta ondorioztatu eban prostituzinoan jarduten eben 7 personatik bat salerosketan egoala, hau da, %14 edo %15 artean.

Aldi berean, LANEK (Lanaren Nazioarteko Erakundeak) txosten bat dauka eta bertan dino munduan 40.000.000 persona dagozala salerosketan, eta horreetatik 4,8 behartutako prostituzinoan dagozala. Hau da, pertsonen salerosketearen espektro osotik, %12 prostituzinoan dago. Beraz, prostituzinoa baino askoz konplexuagoa da: nekazaritza, etxeko lana, adineko pertsonen zaintza, eraikuntza edo ostalaritza lango sektoreak hartzen ditu.

Egin daigun berba estigmearen gainean. Zelan zeharkatzen dau estigmak prostituzinoan jarduten dabenen bizitzak?

Putxa estigmak andra guztiak zeharkatzen ditu. Izan be, sexualitatea nahiko gai iluna da gure gizartean, eta oso sentimentu irra-

zionalak eta tensinoz beteak eragiten ditu. Sexualidadearen bidez eregiten da gizarte nortasuna. Andren kasuan, kontrol bektorea da eta zure sexualidadearen arabera, hobeto edo okerrago hartuko zaitue. Horrek larritasun handia dakar, sexu portaera txar batek gizartearen onarpenetik kanpo itxi ahal zaitualako. Putxa estigmaa gizarte kontroleko bektorea da, eta andra guztiak apliketan jakie, heteropatriarkaduan funtzionalak izan daitezkan. Izan be, sexu jokabide txarrak zigortzean, sexualitatea egokia gura izatea bultzatzen da: hau da, bikotekideagaz, monogamia eta, ahal dala, heterossexuala. Eta jakina, sexualidadean inplikazio emozionala be derrigorrezkoa da andrentzat.

Baina sexu langileen kasuan oindino gogorragoa da. Andra gaiztoarenganako mespretxuak irudi bat sortzean dau, errua, gaitzespena, mespretxua, zigorra, pena, nazka eta errukia nahastuta. Dana batera. Gizarteak emoten deuskun irudia da hori, eta, aldi berean, estigmearen azpian bizi diranen autoirudia eregiten dau. Pertsonen arteko hartu-emonei be eragiten deutse eta indarkeriaz tratetea eragiten dau. Lehen esan dodan moduan, erakundeek be indarkeria erabilten dabe gure kontra, gure seme-alaben zaintzan, osasun sisteman eta legeagaz zigortzen.

Putxa estigmak bakardade handia eta sakona dakar. Edozein estigma baten pean bizi diranen moduan, mundu honetan ez daukazula lekunik sentiduten dozu. **Sistemeak enplegu duinte baterako aukera barik ixten ditu kolektibo batzuk, estigmatizata dagozan kolektiboak: andra migratzaileak, trans-ak, psikotriak gaixotzat jotzen dituanak...**

Euretako askok jarduten dabe prostituzinoan. Esan daiteke gizarte klase bat dirala? Gizarte klase konzientziaduna?

Nire eretxian, sexu langileok klase sozial bat osotuten dogu sistemeak zapaltzen dituan beste andra batzuk batera. Esate baterako, sasoiakako laborantza lanera etorten diran andra migratzaileak; baita etxe barruko langileak be, astean ia 24 orduz eta 7 egunez lan egin behar izaten dabena, edo zaintzako langileak, soldata eta lan baldintza oso txarrak dituenak, edo kellyak eta, jakina, gu, sexu langileok. Hemen ardatz batzuk dagoz: migratzaileak, sozialki estigmatizatautako kategoria baten egotea (trans, kitanu, migratzaile, persona errazializatautako...), eta lan feminizata, historikoki andrekin egin dabelako patriarkadua balio-bakotu dauana eta, beraz, ez leukena gizonen egiten dituen lanen eskubideak izan behar.

Horregaitik uste dot gizarte-klase bat osotuten dogula. Dana dala, gizarte-klase hori guztia ez dago politizata, eta lan horreetan asko kostetan da jentea sindikatzea; kasu batzuetan, arpegia emoteak bizitza pribadua eta etorkizuna amaitzea ekarri leike-ta.

Klase sozial horretan, lanagazko loturarik ez daukien kolektibo batzuk be badagozala uste dot, "buru gaixotasun" bat daukienak eta presoak, besteak beste. Hau da, estigma baten pean bizi eta euren eskubideak urratuta daukiezanak.

Zer da putxa harrotasuna?
Estigma gainditzea da: kontura-

tzea sexu lana aukera ezin hobea izan ez arren, ez daukagula zertan lotsatu edo errudun sentidu, ez dogula geure burua gaizkile, gaixo edo biktima lez pentsatu behar. Langileak gara eta, eskubidedun subjektuak izan beharko geunke. Putxa harrotasuna debeku patriarkalen mugak gainditzea eta zilegi izaten jarraitzen dogula jakitea da, eta, beraz, inok ez daukala gu xarto tratetako eskubiderik: ez bezero batek, ez bikotekideak, ez senide batek. Inork be ez. Jakin behar da duintasuna ez dagoala sexu portaeran, gure giza kalitatea ez dagoala nogaz oheratzen garan eta zergaitik horretan.

Indarkeria egoera asko bizi dabez prostitutek eta sistemeak normalizata egiten ditu.

Putxa feministak babesa eta eskubideak eskatzen doguz salerosketearen biktimizat eta ekonomikoki errealistak diran lan aukerak prostituzinoa itxi gura dabeneztat; izan be, oso ondo oharren gara prostituzinoan egon gura ez dabeneztat, prostituzinoa sexu indarkeria izango dala. Prekarietatea, atzeritartasun legea eta aukera faltea lango ardatzek zeharkatzen dabela prostituzinoa euki behar da kontuan.

Sexu indarkeriagaz amaitu gura izatea prostituzinoaren kontra joanda, puntea suntsituta iberberga desegitea gura izatea lez da. Gainera, ez da etikoa egoera ahulenean dagozan pertsonak instrumentalizetea, klase ertaineko leku baten bizi diran pertsonen bizimodua hobetuteko.

"Prostituzinoagaz, abortuagaz lege gertatzen da, galarazoteak egoera prekarioenetan eta ahulenetan dagozan andrak arriskuan ipintea dakarrela"

MENDIA

Onditz Iturbe hirugarrena Zegama-Aizkorri Kilometro Bertikalean

Erredakzioa

Hirugarren egin eban Onditz Iturbek Zegama-Aizkorri Kilometro Bertikalean, 44:15 kronoagaz, Emelie Forsberg (42:26) eta Naiara Irigoyenen (43:43) atzetik. Probeak 3.000 metroko luzera euki eban, 1.015 metroko desnibelagaz.

Zegama-Aizkorri mendi lasterketetako lehenengo proba izan zan kilometro bertikala. Arrastiko 16:00etan hasi zan lainopean.

Ibilbidea basotik doa eta atzen al dapea oso gogorra da, dana hatxa. Podiuma egin arren, sensazio gazi-gozoak izan ebazan Igorrekoak. "Aurreko astea ez zan erraza izan eta gorputza ez egoan bere onenean. Beraz burrukan egitea baino ez jatan geratzen, barruan egoan apurra ateratea. Baina ez jatan asko gustau zelan kudeatu neban karrera eta ez nintzan gustura geratu. Arantzaxoa kentzean joan beharko naz datorren urtean!" dino Igorreko atleteak.



ERRUGBIA

Arratiko Zekorrak: "Hau aurrera doa!"



Erredakzioa

Maiatzaren 21ean amaitu eban Arratiko Zekorrak-ek ligea, zazpi garren postuan. Urte batzuk talde barik egon ostean, egindako lanagaz pozik agertu da Jon Gurtubai jokalaria eta entrenatzailea: "Aurtengo helburua taldea osotutea izan da, batzuk konprometiduta gagoz eta hau aurrera doa".

Halanda be, ligan zehar erregulartasun faltea egon dala azpimarratu dabe. Izan be, partidu askotan ez dira hamabost jokalaria izatera heldu. Ligatik zortzi partidutun aurkeztu dira hamabost edo gehiago eta seitan gitxiago. "Danok egon garan zortzi partiduetatik bost irabazi doguz eta hiru galdu, bi liderren kontra

eta bestea bigarrenaren aurka", azaldu dau Gurtubai. Hamabost jokalaria izatera heldu diran partiduetako balorazioa oso ona egin dau, "baina askotan hamabi joan behar izan gara arpegia emoten".

Atzen jardunaldia

Gasteizko Gaztedi taldearen kontra jokatu eben atzen jardunaldian. Markagailuko atzen datua ez zan ona izan, 61-10, baina "oso oso partidu duina, harro egoteko modukoa" egin ebela azaldu dau Jon Gurtubai. Izan be, hiru jokalaria gitxiagaz egon ziran zelaian. 28. minutura arte 0-3 irabazten mantenu ziran. 50. minutuan 14-3 joiatzen, baina zekor bat zaurituta, 61 puntuetara heldu ziran arabarrak.

FUTBOLA

Arratia B mailaz igon da eta Lemoako Harrobik igoera promozinoa jokatuko dau

Erredakzioa

Gizonezkoen Arratia Bk Ugaon atzen partidua irabazita lortu eban Lurredeko Lehen Mailara igotea eta Lemoako Harrobik be atzen partidua irabazi ostean Lurredeko Lehen Mailara igoteko promozinoa jokatuko dau.

Arratia B

Arratia B-k puntu bakarra nahikoa eukan mailaz igoteko, eta lortu eban, ze maiatzaren 28an Ugaon Iberlanda taldearen kontra jokatutako partidua 1-5 irabazi eban. Hainbat jente hurreratu zan Ugaora Arratiatik partidua ikusten eta taldea animetan.

"Denporaldiko balorazio ona egiten dot, hasikerako helburua ez zan igotea, talde ona geukan goian egoteko, baina ez genduan pentsetan igon ahal izango ginanik. Gizonezkoen B taldea maila honetara igotea historikoa da, gainera Arratiako jokalaria egin dogu" adierazo eutsan BEGITURI

Asier Etxezarraga presidentea.

Lemoako Harrobi

Lemoako Harrobik be bere eskuetan eukan promozinoa jokatuteko aukerea eta maiatzaren 28an lortu eban Arlonagusian Solokoetxe A taldeari 3-1 irabazita. Oin datorren aste bietan promozinoa jokatuko dau Atletismo Ortuellaren kontra, lehenengo partidua etxetik kanpo hilaren 4an 19.30ean, eta bigarrena Arlonagusian jokatuko dau. "Gu promozinoa disfrutetan goaz, presino

barik" dino Lemoako Harrobi taldeko zuzendaritza taldeko kide batek.

Arratia

Gizonezkoen Arratia A taldeak be amaitu dau ligea 3-2 irabazita Zallaren kontra. Hirugarren amaitu dabe.

Andrazkoen Arratia A taldeak oster, maiatzaren 21ean jokatu eban Euskal Kopako partidua Real Sociedad B taldearen kontra eta 4-3 galdu eban. Hori izan zan Arratiak aurtengo denporaldian jokatutako atzen partidua.



Autokontsumo Fotovoltaikoa

Dirulaguntza handiak dagoz, aprobetxatu!



AURREKONTUA ESKATU



Eguzki panelak jarri eta aurreztu %50 zure faktura elektrikoan

Arratian jadanik proiektu asko eginda!

PROIEKTUAREN KUDEAKETA OSOA

Memoria teknikoa, osagaien instalazioa eta legeztapena

 944 567 368

 www.ekoleds.com

 Bedia | Bizkaia

 info@ekoleds.com



INST. ELECTRICAS

600 565 079

PELOTEA

Amaia Aldai Nafarroako Torneoko finalerako sailkatu da



Erredakzioa

Maiatzaren 25ean lortu eben finalerako pasea Amaia Aldaik eta Nora Mendizabalek, Olatz Arrizabalaga eta Irati Zabalari 22-19 irabazi ostean. Finala bagilaren 5ean jokatu dabe Navarra Arenan, Itsaso Erasun eta Miren Larrarten kontra.

Ligaxka fasea Ane Mendiburugaz jokatu eban arren, finalurrekoan Nora Mendizabal izan eban bikotekide, Ane Mendiburuk eskuak mintuta daukazalako. Finala be, Nora Mendizabalegaz jokatzekoa da.

Finalurreko partidua nahiko parekatuta egon zan. Hasieran Arrizabalaga eta Zabalak hartu eban aurrea, baina errematean asmatu eban dimoztarrak 8na bardindu arte eta hortik aurrera

partidua bardinduta egon zan, 19-19 arte. Atzenengo tantua be luzea eta gogorra izan zan baina partidua irabaztea lortu eben Aldaik eta Mendizabalek. "Partidu polita izan zan, huts egite gitxi egin genduzala esango neuke eta uste dot partidu polita izan zala bai ikusteko eta bai jokatzeko eta azkenean laurok euki genduala sensazio positiboa" azaldu deustu BEGITURI Aldaik.

Biharko Izarrak Txapelketako finalean

Biharko Izarrak Mallabiako Txapelketako finala be jokatu dau Aldaik. Maiatzaren 26an, lortu eban pasea Enara Gaminderi 22-11 irabazita. Finala bagilaren 10ean jokatu dau Olatz Arrizabalagaren kontra.

MARATOI TXIKIA

Aldez aurretik online emon daiteke izena Maratoi Txikian parte hartzeako

Zeanuritik Igorreraino Arratiako Maratoi Txikiko 11 kilometroak egin gura dabenek, izena emon leikie sailkapenak.com webgunean, bagilaren 4era arte.

Erredakzioa

Hurrengo egunean, bagilak 5, jokatu da proba eta egun horretan be emon daiteke izena 08:45etik, 09:15era Igorreko kiroldegian. Igorretik Zeanurira joateko, antolakuntzeak autobusa ipiniko dau 09:30ean.

2005etik 2009ra bitartean jaiotakoek barriz, Arteako plazan emon behar dabe izena, 09:30etik 10:15era. Arteatik Igorrerainoko ibilbidea egiteko, 10:30ean urtengo dira Arteako plazatik. 2010etik aurrera jaiotakoek, Igorren egingo dabe zirkuitu bat, euren edadera egokitutakoa, 10:00etan urtenda. Izena eskolako aterpean emon behar dabe egunean bertan.

Arratia Ikastolak, Igorreko jubila-
duak, Igorreko Udala, Arratia Insti-
tutua, Inazio Zubizarreta eskolako
guraso alkarte, Arratiako Motor
zaleen alkarte eta Arratiako Ziklista
Elkartearen laguntzeagaz antolatu
dau Arratiako 41. Maratoi Txikia.

Aurreko edizioan, lehenengo
gizon biak eta lehenengo andraz-
ko biak eskutik helduta sartu ziran



helmugan. Gizonak, Iñaki Pujana eta Youness Assehli izan ziran eta

andrazkoak, Besaide Astobiza eta Onditz Iturbe.

CEPA Galdakao HHI
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

IKASTETXE PUBLIKOA ETA OFIZIALA
Helduen heziketa

- Euskara
- Gaztelania
- Ingelesa/Frantsesa
- DBH titulua
- Informatika
- Eta gehiago...

Matrikula egiteko epea:
ekainaren 15etik 30era
eta irailaren 1etik 16ra.

www.epagaldakao.com - 94 456 60 98

Elxalde 8, Kultur Etxea (Igorre) eta Arraibi 2 (Lemoa)

amorrortu
taberna - jatetxea - ostetua

OSTATUA
638 712 523

Zabiate 1, - 48130 LEMOA - Biskaiak
www.alojamientolemoa.com
info@alojamientolemoa.com

ASESORIA Gorbeialde
Juridikoa - Fiskala - Lanekoa - Kontularitza
Askatasun 28, 1B - 48143 Areatza
Tfnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

Kili~Kili
Antzoa eta Puzakultura

Lehendakari Agirre 10 - IGORRE (Biskaiak)
Tel.: 94 673 43 81

belagorri

mediku naturista
argaltzeko terapia
kosmetika naturala
elkagai biologikoak
zelakoentzari elkagaisk
estetiziana

Zamakoak, 9 - 48960 Galdakao
94 600 21 12 - 94 600 87 56
L. Agirre, 9 - 48140 Igorre
94 631 14 39

Gure ikastetxeak
Euskalduna kalidazkoa herrikoia

JB Eguzkiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Dima

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Zeberio

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 428 78 15 Artea

Arratia BHI
Tel.: 94 428 79 34 Igorre

Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Areatza

I. Zubizarreta HLHI
Tel.: 94 673 60 22 Igorre

Haur Hezwuntza
Lehen Hezwuntza
Dorrigorrezko Digarren Hezwuntza
Datxilergoan
Hezwuntza Zinloan
2 urtoki 18ra

IKUSKIZUNA

Kaleko opera ikuskizuna egongo da Areatzan bagilaren 5eko gauean

Erredakzioa

Hortzmuga Teatroak eta Deabru Beltzak konpainiek, *Senta. Noraezean* kaleko ikuskizuna antzetzuko dabe Areatzako kaleetan, 21:30etik aurrera. Perkusinoa, sua eta opereagaz kontzientziak astindu eta kaleak esnatu gura ditu ikuskizunak.

Holandar alderraiari inspirata,

Wagnerren operaren barrikuspen eguneratua da *Senta. Noraezean*. "Senta, mamu ontziaren buru eta gidari, iparra galduta dabil. Ez daki non dagoan ezta norantza nabigatzen dauan be; amorrubizian marru eginez noraezean dabil. Egun baten, tripulazioaren agintea hartzea ebatziko dau, munduari indarrez kantetako" sinopsiaren arabera.



ANTZEZLANA

Markeliñe konpainiaren Chef Nature kale antzerkia egongo da Igorreko Goiko plazan

Erredakzioa

Bagilaren 13an, 18:00etan, egongo da antzezlanaren ikusteko aukerea Goiko plazan. Erritmo handikoa, keinuetan oinarritutako antzerkia eta hainbat materialez osatutako dauan lana da *Chef Nature*.

Chef Nature aire zabalean dagoan jatetxea da, berezko ortuagaz. Mahaikideek, euren mobilak eta pantaila guztiak baztertu behar dabez bertan jateko eta ho-

lan, natureagaz konektetan dira barriro. "Proposatutako menua, magikoa, harrigarria, terapeutikoa eta oso dibertigarria izango da".

Markeliñe konpainiak 25 urte baino gehiago daroaz antzerkian, jatorrizko sorkuntzaren aldeko apustuagaz. "Bizi garen mundu eta sasoiagazko konpromisoa erakusten daben istorioak sortzean doguz. Gure uneari eta oroimenari begirada kritikoa eskainiz" dinoe euren webgunean.



KONTZERTUA

Areatzako Musika Bandak Sorotan Bele taldearen kantuak joko ditu Sorotan Bele Gogoan ikuskizunean

Erredakzioa

Bagilaren 5ean, 19:00etan, Sorotan Bele Gogoan ikuskizunak, jatorrizko taldeko Gorka Sarriegi abeslaria eta Urbil Artola gitarra jotzailea, eta Areatzako Banda batuko ditu Igorreko Lasarte Aretan.

Xabi Zabala zuzendariak egin ditu herrietako musika bandentzat egokitutako partiturak.

Sorotan Bele Gogoan musika ikuskizunak gorazarre egin gura deutso 1990eko hamarkadan Euskal Herriak izan eban folk-pop talderik gogoangarrienetakoari. Sorotan Bele taldeak hiru disko entzutetsu argitaratu ebazan eta kantu asko ereserki

bihurtu ziran. Ezagunen artean dagoz, *Arratsalde honetan, Mariñelaren zai* edo *Zortzi orduko ekaitza*, esate baterako. Irlan-

dako doinuak popa eta rockagaz nahastuta izan zan Sorotan Bele taldearen musika ezaugarri nagusia letra alaiakaz batera.



PINTUREA

Zeanuriko bazterrak artistez beteko dira bagilaren 5ean

Erredakzioa

Zeanuriko Aire Zabaleko IV. Margolan Lehiaketara izango da bagilaren 5ean. Partaideek, bost bat ordu izango dabe Zeanuri edo bere inguruaren gaineko koadru bat pintetako. Izan be, 09:00etatik 09:30era zigitatu eta arrastiko 14:00etatik 14:30era arte aurkeztu beharko dabez lanak sinatu barik Kultur Etxean. Sari banaketea 15:00etan izango da.

Margolanen nahitaezko gaia Zeanuri eta bere ingurua izango da. Euskarria laua eta kolore bakarrekoa. Gehienez 100 x 100 zentimetrokoa. Teknikea egileak berak ebatziko dau.

Hiru sari egongo dira: 600 euroko saria irabazlearentzat; 300 euroko publikoaren saria



eta 100 euroko saria zeanuriztar onenarentzat. Margolan irabazleak Zeanuriko Udalaren jaubetzan geratuko dira.

Erakusketea

Margolan lehiaketa egunean, Zeanuriko pintura taldekoen lanen erakusketea be egongo da plazako frontoian.

ZEBERIO METAL

Kartel "mundiala" izango dau aurtengo Zeberio Metal jaiak

Erredakzioa

Rat-zinger, Elizabeltz, 4 Vilains eta Basaki taldeek joko dabe bagilaren 18an Zeberio metal jaietan. Ondoren Dani Alvarezek, DJ Jarros, pintxauko dau musikea. Pandemiaren neurri murriztaileen osteko lehen edizino honetan, jentearen musika gosea asetzeko formatu handian itzuli da Zeberio Metal.

Taldeak probak egiten 15:30etik 18:40era egongo dira: lehenengotik Rat-zinger, gero Elizabeltz eta gero Basaki. Ikuskizuna bete-betean 19:15ean hasiko da plazan. 19:15etik 20:15era Basakik joko dau; 20:45etik 21:45era, Elizabeltzek; 22:15etik 23:30era, Rat-zinger kartelburuaren txandea izango da eta kontzertuei amaiera 4

Villains taldeak ipiniko deutso.

Zeberio Metal jaialdira, Euskal Herriko taldeak konbidetan ditue batez be. "Urtero dauka kartelak zeozer berezia. Aurten, nire ustez berezitasun bi. Bata, pandemiaren osteko lehenengoa dala eta jentea gogo itzelagaz dagoala eta bigarrena, kartelaren aniztasuna, estilo desbardinak: heavy-a, punk-a, rock-a... Kartela definitu behar badot, mundiala dala esango neuke" azaldu deutso begituri Roberto Calleja antolakuntzakoak.

Musikeaz gainera, beste jarduera batzuk be egongo dira; paella txapelketea eta umeentzako jolasak, besteak beste.

ALKARRIZKETEAK

Ane Han-en EPa grabaketa fasean dago

Ane Goienetxe musikari lemoaztarrek, Lemoakustiken aurkeztu eban Ane Han bere proiektu personala. Proiektu honen barruan, *Gorantz* izeneko *singlea* atera dau eta oin EP bat dago prestatzen, uda ostean kaleratzea espero dauana. Larregi eta Sorotan Bele taldeakaz be jo dau lemoaztarrek.



Erredakzioa

Zer moduz joan zan Lemoakustik-eko kontzertua?

Lemoakustik oso-oso kontzertu berezia izan zan. Aurreko edizioak be nahiko arrakastatsuak izan ziran eta nire herrian, nire proiektua aurkezten egotea oso-oso berezia izan zan. Oindino aurkeztu barik egoan. Oso hunkigarria izan zan eta polita.

Proiektu personal honen aurretik, ibilbide bat daukazu eginda musikan, ezta? beste talde batzuetan egon zara.

Bai. Larregi taldeagaz, zuzenekoetan parte hartu izan dot, baita diskoko abestiren baten grabaketan be. Sorotan Belegaz 20.

urtearen bueltan egin eben kontzertuan egon nintzan pianojole.

Zeure proiektu hori Ane Han izenagaz aurkeztu dozu. Zer-gaitik izen hori?

Aspaldian Italian bizi nintzanean, nire abizena ahoskatzea gatxa egiten jakien eta orduan eurentzat Ane Han nintzan. Eta oin, neure proiektuarentzako izena ipintean, hori gustau jatan.

Azaldu apur bat proiektua. Diskoa zein fasetan dago?

Proiektua beharizanetatik sortzean da, talde formatuetan ja ibilia izanda, pandemia sasoiaren kantu batzuk sortu nebazan. Momentuz *single* bat bakarrik atera dot baina badator EP labur bat. Eva Perez-Ponsen poemetatik inspirazioa etorri zan eta egia da kantu batzuetan bere letrea agertzen dala zeharka, beste batzuetan nirea da letrea, baina inspirazioa hortik dator, *Singlea* atera dot, kontzertura eta etorriko danari begira. Diskoa noz urtengo dan ezin deusut esan oindino ez dagoalako prozesua amaituta, baina esan leiteke uda ostetik hur egongo dala, sorpresaren bategaz igual.

Zenbat kantu izango ditu diskoak?
Ez naz ausartzen kopuru bat



emoten baina disko labur bat da. Ideak badagoz landuta, eta grabaketa fasean dago. Oindino osotuteko dago eta buelta batzuk emotea gustauko litxakit. Datozen hilabeteetan joango naz barri gehiago emoten baina momentuz ezin dot gehiago zehaztu horretan.

Inspirazioaz gainera, Eva Perez-Pongegaz egin dozu kolaboraziorik?

Bai, suberte hori euki dot. Berak, Lemoan aurkeztu ebanean bere liburua nik musikatu neban poema errezitaldia. Azaldu neutsan nire idea. Eta lehengoan be Lemoan Memoria Astea hasteko, bideotxo bat prestatu genduan; berak bere poema bat irakurten dau eta nik musikea ipinten dot.

Udara begira, kontzerturik edo?

Ba ondoetorriak izango litzatekez. Momentuz Lemoakustik izan zan agendan neukana eta ez daukat besterik epe laburrean. Ez naz hasi horreen bila momentuz, baina etorten bada ondoetorriak izango dira. Ezpabere, diskoa prestatzen badaukatu lana.

LIBURUAK

Arroz urez eta Zaldi Zoro liburuak aukeztuko ditue Diman

Erredakzioa

Mikel Albisu "Mikel Antza" *Arroz urez* liburuaren idazlea eta Aitor Fresnedo *Zaldi Zoro* liburuaren itzultzailea, bagilaren 7an, 19:00etan, egongo dira Dimako liburutegian, liburu bi horreek aurkezten.

Arroz urez saiakeran, Euskadi Ta Askatasuna erakundearen sorrerea eta amaiera kontetan dau egileak "edo behintzat, sorrera eta amaiera bana, autorearen bizitzari lotuak". Introspektzio ariketa baten bidez, Txabi Etxebarrietagaz hasi eta tia Luzigaz amaitzen dau Mikel Antzak idatzi personal hau; tartean, beste hamaika izen esanguratsu, oihartzunezko edo ezezaguneri lekua egiten deutse. Lan honen hari gidaria Burgosko Auzia da: autoreak auzipetuetako batzuk alkarrizketatu eta testigantzak jaso dauz-ta.

Zaldi Zoroa

Lakoten Oglala tribuko buruzagia izan zan *Crazy Horse*, Zaldi Zoro. Siux gerrak moduan ezagunak diranen testuinguruan ipinten gaitu kontakizunak.

Zaldi Zoro liburua, Maria Sandoz idazleak argitaratu eban 1942an. 2002an, Ocaña I espetxean egoala topau eban liburua Fresnedok eta ingelesetik euskeratu eban. 2020an Ateramiñe argitaletxeak argitaratu eban.

DUNBA

Orienting-a Otxandion

Lemoako JB Eguzkitza Meabe ikastetxeko 6. mailako ikasleen ordezkariak: Yurko Bilbao eta Izar Oronoz

Maiatzaren 24an Otxandiora joan ginan autobusez, orientazio ariketa bat egiteko. Ariketak parte bi eukazan: goizean menditik ibilbidea eta arrastian herri-tik. Mapa bategaz orientau behar da. Ibilbidean baliza batzuk aurkitu behar genduzan, 17 baliza. Baliza bakoitzean tresna bat dago, urtekeran emon euskuen kartoizko fitxa baten marketako bertatik pasau zarala. Marketako tresnak puntuakaz irudi geometriko desbardinak egiten ditu baliza bakoitzean. Urtekeran minuturo urte-



ten ginan bikoteak. 3,6 kilometro dauka ibilbide osoak. Bikote edo

hirukoteetan bananduta egin behar genduan ibilbidea. Baliza

guztietan kartulinan irudi geometrikoak marketan dituan lehenengoak irabazten eban eta errekorra 37 minututan dago. Ordu bi eta erdi euki genduan amaitzeko ibilbidea eta azkenean kartulinea urtekera puntuak erakutsi behar zan, heldu zaran ordua apuntetako. Amaitu ondoren Otxandio eskolako frontoian bazkaldu genduan.

Arrastian emon euskuen orri baten egozan argazkiak topau behar genduzan herri-tik. Argazkien lekua topau eta letrea ipini behar genduan orrian baina euretatik 3 faltsuak ziran. Ordubete eta 10 minutu euki genduan amaitzeko. Argazkiak bere letreagaz lotuta egozanean, lehenengo lekura bueltatu behar ziran, hau da, frontoira, arduradunari orria emoteko.



AGENDA

**BAGILAK 1
ARANTZAZU**

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura Udal Liburutegia zabalik.

18:00etatik 20:30era, *Cocinar plantas silvestres* Marta Miramon eta Encarna Delgadoren ikastaroko saioa Kultur Gunean.

AREATZA

Udabarri osoan zehar medi ibilbide autogidatua Urigoiti (Orozko)-Aldabide-Sintxita. Zailtasun txikia. Parkeko ur-jauziak ezetuteko aukera. Informazio gehiago Parketxean. 94 673 92 79 eta gorbeia.park.naturala@bizkaia.eus.

Xabier Lete gogoan. 19:30ean, Xabier Aierdiren berbaldia *Leteren ikuspegi dialektikoa: Izarren hautsa*. The Quiet Corner tabernan.

ARTEA

18:00etan, Guraso Eskolea Roberto Aguadao psikologoagaz Kultur Etxean.

BEDIA

16:30etik 19:30era, liburutegia zabalik, astelehenetik barikura.

DIMA

16:30etik 19:30era, astelehenetik eguenera liburutegia zabalik.

IGORRE

08:00etatik 22:00etara ikasgela zabalik. Aurretik Kultur Etxera deitu behar da zitea eskatzeko 94 673 62 51 telefonoan.

09:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 20:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik. Goizetan ez dago mailegu zerbitzurik.

Bonodenda kanpaina bagilaren 30era arte.

17:30ean, Arratiako V. Antzerki Topaketak. Lemoako eskolearen *Lemoako ausarten kluba* filma; Areatzako eskolearen *Ro Ro Ro Rolling Stones* antzezlan eta Igorreko eskolearen *Zuhaitz beldurtia* antzezlan. Kultur Etxean.

LEMOA

Bagilaren 3ra arte, jaietako Kartel Lehiaketan parte hartzeako kartelak aurkeztu leikiez lemoaztarrek udaletxean.

08:00etatik 21:00etara, astelehenetik domekara Kotxepineko ikasgela zabalik.

16:30etik 19:30era, liburutegia zabalik astelehenetik barikura Kotxepin Kultur Etxean.

UBIDE

Garagarrilaren 10era arte, Ubidestro Trail-en izena emoteko epea, www.kronoak.com webgunean.

ZEANURI

Abenduaren 1era arte, Udalak antolatutako IV. Argazki Lehiaketarako argazkia aurkezteko epea *harrera@zeanuri.eus* helbidean. Gaia: Zeanuri.

Hilaren 10era arte, Zeanuriko udalekuetarako izen emotea zabalik. 2010 eta 2018 urteen bitartean jaiotakoentzat. Astean 60 euro errolatutako ume bakotzeko eta 80 euro errolatu bako ume bakotzeko. Udaletxean edo *harrera@zeanuri.eus* helbidean.

ZEBERIO

Zemendiaren 30era arte, III. Argazki Lehiaketan parte hartzeako aukera. Gaia: baserriko lanak. Argazkiak udal webgunean horretarako berenberegir sortutako espazioan ipini.

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik

barikura liburutegia zabalik.

Hilaren 17ra arte, udalekuetarako izen emotea udaletxean. Udaleku ibiltaria 2006 eta 2010 urteen artean jaiotakoentzat, bagilaren 27tik garagarrilaren 1era izango da. Udaleku Txikia, 2016 eta 2019 bitartean jaiotakoentzat eta herri udalekua 2011 eta 2015 urteen artean jaiotakoentzat, bagilaren 27tik garagarrilaren 8ra arte izango dira.

Hilaren 12ra arte, Austarri Mendi Taldeak Kantauriar mendikatera (Valdecebollas 2.143 m, El Fraile, 2.001 m) urtekerarako izen emotea *austarrimendialdea@gmail.com* helbidean, 665 735 054 eta 656 415 597 telefonoetan edo mendi taldearen lokalean barikuetan 20:00etatik 21:00etara.

**BAGILAK 2
ARANTZAZU**

18:30ean, Herriko Tabernearen inaugurazioa.

AREATZA

Xabier Lete gogoan. 19:30ean, kontzertua Xabier Leteren musika eta poesia arratiarren aho eta taupadetan. The Quiet Corner tabernan.

IGORRE

Gezala auzoko jaiak. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

17:30ean, Arratiako V. Antzerki Topaketak. Lemoako eskolearen *Jazarpen dantza* filma; Arteako eskolearen *Osabaren heredentzia* antzezlan eta Igorreko eskolearen *Inazio erregea* antzezlan Kultur Etxean.

ZEANURI

18:00etatik 20:00etara, *Nola hitz egin jendaurrean* Idoia Eizmendiren eskutik Kultur Etxean.

**BAGILAK 3
ARANTZAZU**

18:00etan, urtekerea. Hilaren 5era arte, Pirinioetara astegoiaren pasa, Arginatx Mendi Elkartek antolatuta.

IGORRE

Gezala auzoko jaiak. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

16:00etan, Igorreko eskoleak eta Loraldiak antolatuta, *Emakumeak lehen*

**Lakoste, 2021eko Poltsiko Antzerki Jaialdiko lehen saria, Kotxepinen egongo da**

Bagilaren 11n, 20:00etan, Dxusturi Teatroak, Eneritz Artetxe gidoilari, zuzendari eta aktorearen lana ekarriko dau Lemoako Kotxepin Kultur Etxeko oholtzara. Euskerazko formatu txikiko antzerki sorkuntzea eta ekoizpena bultzatzeko 2021eko Poltsiko Antzerki Sorkuntza izeneko programearen lehen saria jaso eban lan honek.

Lakoste antzezlan galdera ugariaren gainean eregiten dan proposamen eszenikoa da: "Zelan buztartu ama bakarra eta sortzaile izatea? Zergaitik ez deusku inok sekula menopausiaz ganoraz berba egiten? Zelan hezi nerabe bat? Ze jente-arte mota gabiz nerabeei transmitiduten? Mundu distopiko honetan geratzen ete jaku alkar zaintzarako eta maitasunerako tarterik?".

lerroan pastoralas Lasarte Aretoran.

**BAGILAK 4
LEMOA**

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, sari banaketeta Lemoatxa/Gantzabal (363 m).

Euskal Jaia. 13:00etan, poteo musikatua Malluki tabernatik hasita; 15:00etan, herri bazkaria Elizondon; 20:00etan, erromeria Elizondon.

DIMA

10:00etatik 14:00etara, Dimako azokea, nekazaritzako elikagaien produktuak, plazako frontoian.

12:30ean, Balkoitik balkoira bertso-saioa. Unai Iturriaga eta Jon Maia. Plazan.

**ZEANURI**

21:00etan, Arineketan musika eta jantza taldearen emonaldia Ibarreta frontoian.

**BAGILAK 5
AREATZA**

21:30etik aurrera, parketik hasita eta Gudariaren plazaraino Hortzuga Teatroa eta Deabru Beltzak-en kaleko opera ikuskizuna *Senta. Noraezean*.

ARTEA

13:30ean, Poesia Hegalaria eta Eingogaz *Vermouth Poetikoa* Herriko Bentan. Rapsodak: Pablo Cabañas, Iru Elexpe eta Sonia L. Astondoa. Musikariak: Iker Allur, Ander Gorostiaga eta Iru Elexpe.

IGORRE

Maratoi Txikia. Nagusiak: 08:45etik

09:15era, izen emotea Igorreko kiroldegian; 09:30ean, autobusa Zeanurira; 10:15ean, nagusien urtekerea Zeanuritik; 2005-2009 bitartean jaiotakoak: 09:30etik 10:15ak arte, izen emotea Arteako plazan, 10:30ean, Arteatik urtekerea; 2010etik aurrera jaiotakoak: eskolako aterpean izena emon urten aurretik; urtekerea 10:00etan.

19:00etan, Sorotan bele gogoan eta Areatzako musika banda Lasarte Aretoran.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldearen mendi urtekerea Amezketara. Balerdi/Mallozarra (1.193 m)-Urakorri (1.304 m)-Aldaia (1.409 m).

ZEANURI

Zeanuriko Aire Zabaleko IV. Margolan Lehiaketa. 09:00etatik 09:30era, euskarriak zigilatu; 14:00etatik 14:30era, aurkeztu; 15:00etan, sari banaketeta plazan. Pintura taldekoen erakusketa plazako frontoian.

**BAGILAK 6
AREATZA**

18:00etatik 20:00etara, hilaren 9ra arte, Uparan Jubilatuta eta Pentsiodunen Elkartek antolatutako bagilaren 16ko Hernani eta Pasai Donibanera txangorako izen emotea, jubiladuen lokalean.

LEMOA

Hilaren 19ra arte, jaietako kirol txapelketetan parte hartzeako izen emotea.

**BAGILAK 7
DIMA**

19:00etan, Mikel Antzak eta Aitor Fresnedok *Arroz urez* eta *Zaldi Zoro* liburuak aurkeztuko ditue liburutegian.

**BAGILAK 8
ARANTZAZU**

18:00etatik 20:30era, *Cocinar plantas silvestres* ikastaroko saioa Marta Miramon eta Encarna Delgadoren eskutik Kultur Gunean.

**BAGILAK 10
IGORRE**

Hilaren 19ra arte, Igorreko jaiak. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

**LEMOA**

Lemoako Batzokiaren urteurrena. 20:00etan, musika zuzenean; 20:30ean, sardina-jana.

ZEBERIO

Hilaren 13ra arte Ermitabarriko jaiak. Ikusi egitaraua 7. orrialdean.

**BAGILAK 11
IGORRE**

20:00etan, abesbatzak: Luis Iruarizaga Abesbatza, Irutasun (Algorta) eta Sanfran Korue (Bilbo) Lasarte Aretoran.

02:30ean eta 05:00etan, jaietatik Arratiako herrietara bueltetako autobusa. Autobus geralekuan.

LEMOA

Lemoako Batzokiaren urteurrena. 13:00etan, azkolaria: Julen Mendieta eta Done Intxausti; 13:45ean, inguruko tabernetan poteoa; 15:00etan, bazkaria; 17:00etan, Mus eta Briska Txapelketak; 18:00etan, umeentzako puzgarriak eta txokolata; 22:00etan, Fitoren kontzertuaren proiektzioa pantaila erraldoian.

**BAGILAK 13
IGORRE**

18:00etan, Markeliñe konpainiaren *Chef Nature* antzezlan Goiko plazan.

**BAGILAK 15
ARTEA**

19:00etan, Kafrangak talde feministek antolatuta, zineforuma *Aurrera egin badugu* dokumentala Kultur Etxean.


ZEANURI

Garagarrilaren 15era arte, Zeanuri Lorantxapelketa.

Familia judu ortodoxoa, amodio lesbikoa eta desobedientziaren premia eta nahia *Disobediencen*

Igorreko Zineklubak Sebastian Leiloren *Disobediencia* filma dakar bagilaren 2an, 20:00etan, Igorreko Lasarte Aretora. Rachel Weisz, Rachel McAdams eta Alessandro Nivola antzeztzen dabez paper protagonistak, Torontoko Nazinoarteko zine jaialdian 2017an estrenatutako film honetan. Harrezkeroztik kritika onak jaso eta publikoaren aldetik arrakastea izan dau. Baita sari batzuk be; tartean 2019ko Cinhome jaialdiko publikoaren saria fikzinozko pelikularik onenari.

Filma, Naomi Aldermanen titulu bereko nobelearen egokitzapena da, eta Roniten istorioa kontetan dau. Ronit, familia judu ortodoxo baten hazitako andra bat da, familiaren etxera itzuliko dana aita errabino hil eta gero. Txikitako herrian bueltan, eskola sasoiko lagun bategaz izandako hartu-emon berreskuratuko dau; komunitate horretan galarazota dagoan amodio lesbikoa, hain zuzen.



KOMIKIA

Iman Olatu



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

SALTZEAN DODAZ

Altzari barriak eta erdibarriak. Argazkiak bialdu daikedaz edo etorri zaitezkie ikusten. Telefonoa: 666 135 596.

BATERIA SALGAI

Yamaha markako bateria saltzean dot. Laranja kolorekoa. Interesdunek deitu 676 967 854 telefonora.

GARAJEA ALOKATZEN DOT

Garajea alokatzen da Igorreko Elexalde kaleko 56 zenbakian. Eleiza aurrean. Telefonoa: 94 631 60 22.

CADDY LIFE OHEAGAZ SALGAI

Volkswagen Caddy Life 1.9 tdi, 2007koa saltzean da. Oheagaz dator, baita atzeco portoiari ipinteko abantzia be. Interesdunek 680 683 133 telefonora deitu edo *oihane.regil@gmail.com* helbidera idatzi.

PISUA BEHAR DA ERRENTAN

Saharako gazte batek pisu merkea errentan hartu gura dau Igorre edo inguruetan. Lana (nominea) dauka. 10 urte inguru daroaz Euskal Herrian. Interesdunek 631 104 818 edo 607 841

058 telefonoetara deitu edo *rakelgoni@gmail.com* helbidera idatzi.

SALTZEAN DODAZ

Ostalaritzako makineria eta altzariak saltzean dira: oilasko burrunzia, konbekzino labea eta prijigailua. Ondo zaindutako egurrezko zibua eta ume-aulkia oparitzen dira. Burdinola argiontzia be saltzean dodaz. Telefonoa: 620 276 471.

LANA

SUKALDARI BILA

Zaztaparrak-ekoak udaleku itxietarako sukaldari bila gabiz. Abuztuaren 1etik 12ra bitarteko lana. Informazio gehiago gura izan ezker idatzi *zaztaparrakudalekuixiak@gmail.com*-era.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera **Sorotan Bele eta Areatzako Bandaren kontzerturako.**

Ainara Aranzeta (Bilbo)
Josu Nuñez (Zeberio)



2 Kotxepin Kultur Etxeak emondako bina sarrera **Lakoste antzezlanerako.**

Jabi Lamadrid (Dima)
Bego Tabera (Artea)



begitu

Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 20 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus



ETA ZU EZ ZAITUGU OINDINO SAREAN HARRAPAU? GERO ETA GEHIAGO GARA!



776 JARRAITZAILE



239 JARRAITZAILE



2.085 LAGUN



begitu



**BAIETZ
50 LAGUN
BARRI EGIN!**

2022AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko.

Horretarako **2022an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiaturik gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkarte Herriko plaza 24. 48142 Artea.



Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____

Kontu korrontearen zenbakia: ES _____

Aukeratu urteko kuotea: 35€ 55€ 75€

*Gainera Begituren produktu honek helduko jatzuz etxera doban.